



txanela

Irakaslearen gidaliburua **(zirriborroa)**

1

**Maite ditut maite, gure
bazterrak!**

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 4. maila)

Ongi etorri 4. mailara, irakasle!

Gida honetan eta atzetik datozenetan ere, iaztik ezagunak dituzun hainbat azalpen aurkituko dituzu, garrantzitsua iruditu baitzaigu hainbat alderdiren garrantzia azpimarratzea edota lantzeko jarraitu beharreko prozesua berriz ere gogora ekartzea.

Oharra: Unitate didaktiko honetan, atzetik datozenetan baino jarduera gehiago aurkituko dituzue. Hori dela eta argibide batzuk eman nahi genituzke:

Txanela proiektua eskuzabala da jarduerak eskaintzeko orduan; horrek ez du esan nahi bertan agertzen diren jarduera guztiak burutu behar direnik. Inondik inora ere ez. Arrazoi ezberdinak direla eta (ikastolak berezkoak dituen urteroko ekintzak, ikasleek etxetik ekarritako materialari eskaini beharreko arreta eta denbora...), **ezinezkoa da jarduera guztiak burutzea** (ez unitate honetan ez eta besteetan ere); beraz, **aukeraketa** egitea **behar-beharrezkoa** da. Proiektuak irakasleak esku artean proposamen zabala izan dezan nahi du eta, taldearen beharren eta premien arabera, jardueren aukeraketa egiteko aukera eskaintzen du.

Urtero, ikasturte hasieran, lehenengo unitatea lantzen ari garen neurrian, gelaren antolaketa ere martxan jartzen da. Unitate honetan, gelaren antolaketarako hainbat proposamen azaltzen dira. Halere, **jarduera hauek guztiak ez dira unitate honek dirauen bitartean zertan egin beharrik**. Nahi izanez gero, ikasturtea aurrera doan heinean, eman diezaiekezue hasiera, eta bukaera, berriz, dinamikaren baitan erabakiko duzue.

Unitatearen haria eta proiektua: Eskualdeko herri batzuk bertatik bertara ezagutzeko informazioa bildu, liburuxka turistikoa egin eta irteera planifikatu eta gauzatu.

Urte osorako proiektutxoak: Egunerokoa eta txokoak martxan jarri: “Ipuinen txokoa”, “Liburutegia”, “Txoko zuria”, “Konpositoreen txokoa”, “Gutunen txokoa”, “Albisteen txokoa” eta “Erranen txokoa”, “Proiektuen albuma”.

Irtenaldiak: Eskualdeko herriak bisitatzea.

ZEHAR-LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

- Bide hezkuntza: kaleko seinaleak eta arauak.
- Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza: Elkarrekin bizitzeko arauak.

EUSKAL DIMENTSIOA

- Hizkuntza eta literatura: Olerkiak, Joxan Ormazabal; Igarkizunak, J. M. Olaizola “Txiliku”; “Izorrai” ipuina, Mitxel Murua; “Errota zahar maitea” bertsoa, Joan Mari Lekuona.
- Musika eta gorputz motrizitatea: “Herriko jatorrak”; bertsoak: Imanol Urbieta. “Zelako zaparrada”; unitateko abestia: Joxan Ormazabal eta Imanol Urbieta. “Gure bazterrak”; tradiziozko abestia: Artzeren olerkia, Laboak abestua.
- Ingurunea: Euskal herriko eskualdeak, eskualdeko herriak, EH-ko klima eta paisaia.
- Arte plastikoak: Jose Luis Zumeta, biografia eta artelanak.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkartea hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- IKASYS Ikastolen Elkartek garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jarduera sorta handia eskaintzen du.
- Txanela webgunea (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- Ostadar webgunea (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jarduera zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkartek eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. Virtusbooks (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jarduera ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 4

IKASLEAREN LIBURUA - 1. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

GIDALIBURUKO JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	3	
9		Gure bazterrak	5	5	
35		Herriko jatorrak	23	23	
39		Zelako zaparrada	24	24	
49		Euskal Herriko klima eta paisaiak	29	29	
52		Erliebeko elementuak	31	31	
54		Ikusten duzu goizean	33	33	

JARDUEREN ANALISIA

1. Zer moduz? Aspaldiko, neska eta mutiko!

Lan egiteko era: Talde handian

Ikasturte berriari giro onean hasiera emateko, hor behean duzuen elkartasun-jolasa egitea proposatzen dizuegu, ikasturte hasieran, ikasle berriak zein berriak ez direnak ere urduri egoten baitira eta jolas hauek tentsioak askatu eta talde-kohesioa eta elkar-ezagutza errazten dute.

Sardinak lata barruan sartuta!

Espazio fisiko zabala behar dugu, denok lurrean etzan behar dugulako. Irakasleak zera esango du: *Atzo, afaltzeko, sardina lata ireki nuen eta bertan 3 sardina zeuden!* Irakasleak esaten duen zenbakiaren arabera, ikasleek multzokatu egin beharko dute (kasu honetan, hiruak) eta lurrean etzan, bata bestearen ondoan, erantsi-erantsi eginda, baina ondoko lagunaren kontrako norabidean, alegia, batek burua duen lekuan besteak hankak izango ditu, eta alderantziz.

Hirukotea osatzerik izan ez duen pertsonak edo izan ez duten pertsonak (bi izan daitezke kasu honetan) hasierako esaldia esan beharko dute, zenbakia aldatuz, eta esan bezain laster, lata batean sartzen saiatu behar dute.

Jolasa bukatzean, ikasleek ezagutzen dituzten elkartasun jolasen artean eurek proposatutako besteren batean jolasteari ekin diezaikeazue. Bukatzeko, erlaxatzeko, iaz ikasitako teknikaren bat gogora ekarri eta egin dezakezue (ikus 3.3 unitateko gida).

2. Oporren inguruko elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Ikasturtearen lehenengo eguna duzue, oporren ostean ohikoa den jarduera egitea proposatzen dizuegu, hau da, oporren inguruko elkarrizketa martxan jartzea (non izan diren, zer egin duten oporretan, zer moduz pasatu duten...). Haurrak kokatu elkarri aurpegia ikusten diotela (biribilean edo), garrantzitsua baita era egokian komunikatzea. Nahi izanez gero, proposa diezaikeazue ikasleei oporretan ateratako eta gustukoak duten argazkia gelara ekartzea, orritxo polit batean itsastea eta bertan, idatziz, adieraz dezatela egun hartan igarotako mementoa. Ondoren, kartulina batean jar ditzakezue guztiak.

Gogoratu, elkarrizketa-egoera guztietan horri dagozkion hainbat alderdi lantzeko aukera duzuela. Ez dituzue zertan alderdi guztiak jarduera jakin batean landu, elkarrizketan arituko zaren bakoitzean, alderdi guztiak aplikatzen saiatuko bazarete ere, egun bakoitzean alderdi bati arreta jarri eta modu berezian landu dezakezue.

- *Ea, ekar ditzagun gogora zein diren elkarrizketan aritzeko bete beharreko arauak. Hitzak eskatu, parte hartu... Ea denon artean osatzen dugun zerrenda, eta arbelean idatziko dugu. Arau hori aipatzeaz gainera saiatuko gara arau horren garrantzia azpimarratzen eta ez betetzeak sor ditzakeen eragozpenak aipatzen ere. Bueno, badakigu denak direla oso garrantzitsuak eta derrigorrezkoak elkarrizketa modu zuzenean bideratzeko; horregatik, ikasi egin behar dugu horietako bakoitza zuzen betetzen; beraz, gaur, arreta berezia jarriko diogu...*

Taldean, aukera dezakezue zein izango den alderdi hori, eta elkarrizketa bukatzean, balorazio txiki bat ere egin dezakezue. Landu beharreko alderdiak zein diren jakiteko, ikus ziklo honetako 3. eta 4. helburuari dagozkion ebaluatze irizpideak.

3. Aurreko urteetan egindakoa gogora ekartzen

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Litekeena da ikasle berririk ez izatea eta ikaskideak ezagunak izateaz gainera, irakaslea ere iazko berbera izatea aurten. Hala ere, ikasturte hasiera honetan, memoria freskatu eta iaz egindakoak (proiektua, irteera, landutako gaiak...) gogora ekartzea proposatzen dizuegu. Irakaslea edo ikasleren bat berria balitz, hari zuzenduko genioke informazioa.

Elkarrizketa honetan gogora ekarriko dugu, baita ere, nola antolatu genituen gela, zein txoko jarri genituen martxan, arduren banaketa, etab., horrek bidea emango baitiegu aurten gelaren antolaketa martxan jartzeko.

Ez ahaztu elkarrizketari dagokion alderdiren bat bereziki lantzeko aukera duzuela berriro ere.

4. Gelaren antolaketa: Txokoak

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Ikasleekin batera gela antolatzen eta errutinazko ekintzak zerrendatu eta arduren banaketa egiten hasiko gara.

Hona hemen behean, txoko bakoitzaren funtzionamenduari eta antolamenduari buruzko laburpentxoak.

IPUINEN MUNDUA

Ipuinak ekoizteko lagungarri izan dakigukeen edozer informazio landu ahala (ipuinaren egitura, hasierako eta bukaerako formulak, denbora-antolatzaileak, adjektiboak, etab.), kartulinatan idatzi eta txoko honi dagokion espazioan itsatsiko dugu, ikasleek euren ipuinak ekoizteko orduan, behar dituzten erreferentziak, bertan, begien bistan izan ditzaten.

*Seguruenik, 3. mailan, ipuinen munduan, ipuinen inguruan landutako guztia gordeta izango duzue. Egoki ikusten duzuen unean, txoko hau martxan jar dezakezue, eta aurreko urteko informazioa gogora ekartzearekin batera txokoa osatu.

TXOKO ZURIA

Gelan, ikasleek TXOKO ZURIA izenez ezagutzen duten espazio bat uztea gomendatzen dizuegu. Txoko hau gai bakoitzean landuko ditugun proiektuei espazio bat eskaintzeko pentsatua dago. Edozer motatako materiala izan daiteke baliagarri eta aproposa txoko horretan jartzeko (bideo, liburu, argazki, marrazki, aldizkari, panpina, artelan, poster...), betiere, gaiarekin zerikusia badu. Urteek erakutsi digute txoko hau gainezka egoten dela eta haurrentzat oso motibagarria dela, edozer mementotan informazio bila bertara jotzeko aukera polita ematen baitu.

Dagoeneko, txoko hau martxan jarri duten irakasleen balioespenetan, aniztasunari eta erritmo desberdinei erantzuteko oso baliabide aproposa dela jaso ahal izan dugu. Lanak azkarrago burutzen dituzten haurrek txoko honetara jotzeko ohitura garatu omen dute, eta gaiaren inguruko informazioa, literatura, etab. irakurtzen eta behatzen ari diren bitartean, irakasleak mantsoxeago dabiltzan haurrei kasu egiteko aukera izaten omen du.

LIBURUTEGIA

Gelako liburutegia antolatzeari garrantzi handia eman izan diogu beti, funtsezkoa da txoko hau. Gure proposamena ahal duzuen liburutegi zabalena jartzea da (gela bakoitzean jarri ezin bada, espazio komun baina gertuko bat izan daiteke), bertan komikiak, ipuinak, informazio liburuak, hiztegiak, aldizkariak eta egunkariak jarritz.

Ikastolan, egunero-egunero, etxera joan baino bost edo hamar minutu lehenago hurrei gelako liburuak hartzeko aukera emango diegu. Horretarako, haur bakoitzaren liburutegi-fitxa bat prestatuta eduki behar duzue etxera eramaten dituen liburuak apunta ditzan.

Liburutegia (nola txoko zuria) hornitzeko, hurrek etxetik liburuak ekar ditzakete. Izena jar diezaietela, epe bat pasa ondoren bueltan eraman ditzaten.

Liburuen erabilerari buruz hainbat aholku ematea ere garrantzitsua da. Balio ekonomikoaz eta afektiboaz (gozamena, oroimenak, kontsultarako eduki ahal izatea...) hitz egin. Eta nola zaindu behar ditugun guztien artean hitz egin (eskuak garbitu, poliki ibili, bertan ez idatzi eta ez margotu..., adib.). Etxera eramanez gero, bertan behar adina denbora eduki baina ez gehiago...

GURE KONPOSITOREEN TXOKOA

Txoko honetan, urtean zehar lantzen ditugun entzunaldi eta hauek konposatu dituzten egileei buruzko informazioa (irudia, biografia...) jarriko ditugu.

GUTUNEN TXOKOA

Hurrek etxetik ekarritako gutunak, edota ikastolara heltzen direnak itsasteko toki egoki bat prestatuko dugu "Gutunen txokoa" izenburupean. Koloretako kartulina handiak aerofix-ekin forratzen baditugu, zinta eransgarria errazago kendu ahal izango dugu, eta kartulina gehiago erantsiz, txokoa handitzeko aukera emango digu.

Ziklo honetan ere jarraituko dugu irakasle eta familien arteko erlazio idatzia bultzatzen, hizkuntza idatzia era funtzional batean lantzeko, hau da, komunikatzeko tresna bezala. Baina, aurren, ikasleek beraiek nahi dituzten gutunak etxetik idatzita ekartzea bultzatuko dugunez, "Gutunentzako txokoa"n ikasleek ekarritakoek lehenasuna izango dute.

Txoko honek, tokirik edukiz gero, behintzat, beste aukera bat eskaintzen digu: GURASOEKIN eta GURASOEN ARTEAN komunikatzeko aukera. Gela bakoitzak ez du derrigorrez berea eduki behar, gurasoentzako informazio orokorra jartzeko kortxo bat ere egokia izan daiteke, hainbat gauza jartzeko: menua, irtenaldiak, festarako gonbiteak eta beharrak, hezkuntza aldizkarietako artikulutxoak, gurasoen ekarpenak...

ALBISTEEN TXOKOA

Beste espazio bat ALBISTEEN TXOKOA izatea proposatzen dugu. Aurreko txokoan bezala, izena txartel batean jarri.

Irakasleak egunero EGUNKARIA gelara ekartzen jarraituko du eta liburutegian, “Euskal prentsa”ren tokia edukiko du, nahi duten hurrek ikus edo irakur dezaten. Egunkariarekin batera komenigarria litzateke euskaraz argitaratzen diren beste aldizkariak ere edukitzea: herri aldizkaria, ikastolako haur/helduek argitaratzen dutena, *Argia*...

Albisteren batek arreta ematen badigu, moztu, irakurri, eta “Albisteen txokoa”n itsatsiko dugu. Jarduera honek hainbat gairi buruz hitz egiteko aukera emango digu.

Era berean, ikasleak etxetik edozer albiste ekartzera animatuko ditugu, lantzen ari garen gaiekin zerikusia duena edo, beste barik, bere interesa piztu duena.

NON EDO HAN, GURE TXANELAN!

“Non edo han, gure Txanelan” urte osoko proiektua izango da, unitatez unitate osatzen joango garena, hala ere, unitate bakoitzeko zatiak nortasun propioa izango du.

Koaderno erraldoi bat izango da, argazki bilduma berezia. Bertan unitate bakoitzean egindako proiektuaren fase ezberdinetako argazkiak jarriko ditugu eta argazki bakoitzak bere azalpena izango du. Koaderno honek urte osoan zehar jarraitutako ibilbidea erakutsiko digu. Gure ikasketetako bizipenak argazki bidez adieraziko dira, azalpenez osatuak. Azalpen hauek ez dira zertan formalak izan, ez gabilta azalpen liburu bat osatzen ari, gure oroimen albuma baizik. Azalpenak formalak ez izateak ez du esan nahi zuzen adierazita eta ulertzeko moduan egon behar ez dutenik, kontuan izan behar baitugu, guretzat izateaz gain, hainbat jendek ikusi eta irakurtzeko aukera izango duela, guraso izan nahiz ikastolako beste kide izan.

Album hau osatzeko prozedura hurrengo hau izan daiteke:

- Presta ezazue albumaren azala, agian txanelaren irudia jarri dezakezue bertan.
- Ondoren, taldetxoetako batek presta dezala era kolektiboan, gai honi dagokion azala, teknika ezberdinak erabil ditzakezue horretarako.
- Taldetxoetan bilduko gara. Taldekideek, egokitu zaien argazkiaren oinean idatziko duten azalpentxoan adieraziko dituzten ideiak adostu ondoren, azalpenaren zirriborroa idatzi, zuzendu eta folio batean txukun-txukun idatziko dute. Gero, albumean argazkia eta azalpena kokatuko dute.

Urte osoko proiektu honek gure memoria etengabe freskatzen lagunduko digu eta egindako lanaz kontzientzia handiago izatean harro sentitzen ere lagundu diezaike ikasleei.

5. Egunerokoa edota pentsamenduen koadernoia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Urte osorako proiektua izan daitekeen egunerokoa martxan jartzea proposatzen dizuegu. Egunerokoa ikasturte hasieran nahiz zeuek egoki ikusten duzuen unean jar dezakezue martxan, dinamikan agintzen duen arabera proiektuaren iraupena luzatuz edo laburtuz (hilabete bitik behin landuz, adibidez), atsedean tartekak hartuz, etab.

Ikasle bakoitzak egunerokoa idazteko bakarrik izango den koadernotxo bat (polita) izango du, ikasleek eurek egina, horrela nahi baduzue. (Barrualdean, folioak eta aurreko eta atzeko azala egiteko, kartulina bat erabil dezakete, tenperekin nahiz beste material batekin marraztu edo apaindu ostean, plastifikatu eta folioekin batera gratatu eta koaderno itxura emanda).

Eguneroko honetan, ikasleek egunero eta bakarka, goizeko lehen orduan, zerbait idatziko du, berak nahi duena: gertakari bat, berri bat, sentimendu bat, pentsamendu bat, kezka bat, iritzi bat, zerbait interesgarria edo garrantzitsua, iraganekoa edo orainaldikoa... Tarteka, denbora izanez gero, apain dezake marrazkien edo beste tekniken bidez (bidean aurkitu duen kromoa itsatsiz...). Eta idatzi duen hori berrikusi eta zuzentzeko ohitura har dezan landuko dugu. Eguneroko dotorea lortu behar dugula adierazi guztiei eta mimos zain dezaten eskatu.

Ikasleak idatzi duen hori, hartzaileari dagokionez, era askotara bidera dezakegu. Egunerokoa gauza intimoa izan daiteke eta kontu handiz erabiliko ditugu gauza horiek. Edozer erabaki hartzen dugula ere, “negoziatua” eta “kontsentsuatua” izan beharko du. Hona aukera batzuk (hauen arteko konbinazioak ere egin daitezke):

- Idatzitakoa berrikusi ondoren, irakasleari emango dio irakur dezan eta, ondoren, bien arteko elkarrizketa txikia sortuko dute idatzitako horren inguruan.
- Txandaturaz, haurren idatzi labur horiek egileak edota tutoreak (haurraren baimenarekin, jakina) taldeari ere irakur diezazkioke. Astearen pare bat egunetan –tutoretza ordua ere horretarako egokia izan daiteke– hartu horretarako denbora pixka bat. Taldean idatzitakoaren inguruko elkarrizketatxoa gara daiteke. Ikasle guztiek hartuko dute parte fisikoki eta entzuketa aktiboa eginez, baina hasieran ez itzazue hitz egitera derrigortu, denborarekin eurek nahi izango dute parte hartu.
Korroan jarrita, ikasle guztiek bata bestearen aurpegia ikusten dutela burutuko genuke solasaldia. Nahi duen ikasleak egunerokoan idatzia duen sentimendu, kezka, berri... irakurtzeko edo ahoz kontatzeko aukera izango du, hau da, irakasleari kontatu beharrean beste ikaskideei kontatu edo irakurriko die, eta, ondoren, norbaitek zerbait esan nahi badu horren inguruan, aukera izango du, hitza eskatuz eta txanda errespetatuz, bere iritzia, aholkua, etab. adierazteko.
- Pentsamendu bat edo beste –denboraren arabera– arbelean idatz daitezke eta haren zuzenketa kolektiboa ere egin dezakezue. Betiere, haurraren produkzioa errespetatuz, ondo egindakoa txalotuz eta hobetzeko asmoarekin. Ortografia eta puntuazio-arauak lantzeko une aproposa da honakoa.

- Idatzitakoa norberarentzat geratzen da eta inoiz nahi izanez gero, taldeari edo irakasleari adierazten zaio eta, egoki ikusten bada, zuzenketa egiteari ekiten zaio.
- Ikasturtea aurrera doan neurrian, ikasleek beren produkzioak berrikusi eta beren idazkerari buruzko balorazio txikiak egin ditzakete. Zertan hobetu dut nire idazkera eta nire egunerokoaren itxura? Zer hobetu beharko nuke oraindik ere?

Eguneroko honen funtzioa bikoitza da: batetik, idatzizko komunikazioan oinarritutako idazketa-prozesua garatzea, eta bestetik, irakaslearen eta ikaslearen arteko komunikazio eta harremana sendotzea.

Ikasleak egunero idaztean, hizkuntza idatzia landu eta garatuko du, pentsamendua hitz eta esaldi esanguratsu eta egituratu bidez adieraziz, letra ulergarriaz idatziz eta beharrezkoak diren puntuazioa-arauak jarritz, hartzaileak (norberak, irakasleak) uler dezan. Beraz, idazketa komunikatibo eta funtzionalaren zentzua barneratuko du ikasleak apurka-apurka jardura honekin. Horrez gainera, irakaslearekin nahiz taldean, izan ditzakeen elkarrizketetan, hainbat hizkuntza-funtzio martxan jartzerakoan, ahozko hizkuntzaren zuzeneko garapena bideratuko da eta ikaslearentzako sentimendu-hustuketa edo askatzeko bidea ere eman daiteke, agian, ahoz esatera ausartzen ez zen gauza bat errazago gertatzen zaiolako idatziaren bidez askatzea.

Horregatik, ahozko eta idatzizko hizkuntzaren garapena lantzeaz gainera, ikaslearen alde emozionala eta afektiboa ere lantzeko aukera ematen digu ekintza honek. Eta irakaslearen aldetik ere ikasleak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko aukera ematen du.

Idazketaren zuzenketari dagokionez, zuzenketak ikasleen koadernoan egin beharrean, komenigarriagoa da ikasleei esatea euren idatziak irakaslearengana joan aurretik irakurtzeko eta egokiak diren zuzenketak egiteko, edo bestela, irakurri ahala ulertarazi ikasleei, idatzia ulertzeko zailtasunak ditugula, agian, punturik ez duelako jarri, letra ez delako ulertzen...; ikaslearen nahia irakasleak idatzitakoa ulertzea izango denez, berehala ekingo dio zuzenketak egiteari. Gogoratu egunerokoak dotorea izan behar duela eta gorriz zikinduta ez dela batere erakargarria geratzen.

Jarduera honen prozedura oso garrantzitsua da, errespetuz entzuten ikastea, entzundakoaren inguruko interesa adieraztea, hausnartzea, enpatia lantzea... Irakaslearen lana prozedura hau guztia modu egokian bideratzea izango da.

Proposamen honen inguruan sakontzeko ikus honako artikulua: “Pentsamenduen koadernoak” : idazketa funtzional eta komunikatiborako proposamena”. Mikel Prieto Gil de San Vicente. Ikastolen Elkarte. Irakurketa eta idazketa. VIII. Jardunaldi pedagogikoak. Gasteiz, 2001.

6. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Azalari behatzea eta elkarrizketa unitate bakoitzaren hasierako jardura da. Bere helburua, aurreikuspen-estrategiak lantzea eta hurrak motibatzea da.

Elkarrizketa bideratzeko, Tough-en hizkuntza-funtzioetan oinarrituko gara (hurrengo atalean zehazki agertuko ditugunak). Azalean agertzen diren elementuak izendatuko ditugu, euren artean erlazionatuz, esandakoa arrazoituz eta iragartzeari bidea emanez.

Gogoratu elkarrizketari dagokion alderdiren bat bereziki lantzeko aukera duzuela berriro ere.

- *Izenburuari erreparatu. Zeri buruzkoa izango dela uste duzu unitatea?*
- *Irudiei erreparatu. Izenburua eta irudien artean ba al dago erlaziorik?*
- *Irudiek pista gehiago eman al digute gaiaren inguruan?*

Bukatzeko, ikasleek euren izena idatziko dute unitatearen hirugarren orrialdean.

7. Komikia

Lan egiteko era: Talde handia/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 4. eta 5. or.

Komikia irakurtzen hasi aurretik, hirugarren mailan geundenean gure pertsonaiak eta horiek izan zituzten gorabeherak gogora ekarriko ditugu, batez ere azken unitatean gertatutakoa, hor aipatzen baitzen horietako bakoitzak zer plan zuen oportetarako:

Gogoratzen al dituzue gure pertsonaiak? Izenak aipatu, bakoitzaren izaera, gustuak, etab. Zer erlazio mota dago haien artean? Nola ezagutu zuten elkar? Eta zer gorabehera izan zituzten iaz? Eta gogoratzen al duzue zer plan zeukaten oportetarako?

Ondoren, iragartzeari ekingo diogu eta gure pertsonaiak udan, gure ustez, egin dutenaren inguruan mintzatuko gara.

Gero, komikia irakurtzen hasi aurretik izenburuari erreparatuko diogu eta honen inguruan elkarrizketa sortuz bi hizkuntza-funtzio jarriko ditugu martxan: arrazoitzea eta iragartzea:

- *Zein da komikiaren izenburua? Nondik ote dator Maider? Zergatik uste duzu hori? Izenburua irakurrita, jakin dezakegu zer gertatuko den komikian? Zer gertatuko dela uste duzu?*

Jarraian, bakarka irakurtzeko tartetxo bat emango diegu ikasleei. Adieraz iezaiezue, beti bezala, komikian hitza bezain adierazgarria izan daitekeela irudian bertan ager daitekeen edozer xehetasun; beraz, eman iezaiezue behar beste denbora hori sakonki beha dezaten. Gero, taldean, komikiaren inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu eta Tough-en hizkuntza-funtzio bat edo beste martxan jarri:

- Zer da komikian gertatu dena? Gaiaren inguruan hitz egingo dugu.
- Nondik datorrela uste duzu Maidere? Nor izango dira berarekin trenean etorri direnak? Zer hizkuntzatan hitz egiten dute? Zer euskalki erabiltzen dutela uste duzu? Nongoak izango dira? Non pasatu ditu Maidererek oporrak? Zu izan al zara inoiz Pirinio aldean? Eta beste mendiren batean? Gustuko al duzu mendian ibiltzea?...
- Nor joan dira Maidereen bila tren-geltokira? Nor izango da Maidereen amarekin dagoen emakumea?
- Zer gertatu zaie Xabierri eta Mei Liri?
- Maiderekek Xabier eta Mei Li besarkatzean, bi horiek beraren hutsunea nabaritu zutela esaten die. Begira iezaiozu arretaz irudiari. Nork nabaritu duela gehien uste duzu besteen falta?
- Zu oporretan zaudenean, etxekeogandik urrun, nola sentitzen zara? Hutsunea nabaritzen al duzu? Zergatik?
- Komikian gai honetan landuko ditugun hainbat gauza aipatu dira, ea gauza zaren jakiteko zein diren eta zein izango den landuko dugun gaia.

Hemen behean Tough-en hizkuntza-funtzioen sailkapena duzu. Ezaguna baduzu ere, berrikus ezazu. Gogoratu, hizkuntza-funtzio guztiak lantzea komeni dela, baina horrek ez du esan nahi, jarduera batean funtzio guztiak martxan jarri behar dituzuenik, jardueraren arabera, bat edo beste aukeratu eta landu.

TOUGH-EN HIZKUNTZA-FUNTZIOEN SAILKAPENA-3., 4., 5., 6. ETA 7. ATALAK

Tough-ek hizkuntza-funtzioak zazpi ataletan banatzen ditu. Ereduan, 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak besterik ez daude, aurreneko biak gelako eguneroko harremanean garatzen baitira. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, egoera edo irudi bakoitzaren inguruan egokienak aukeratuz.

Funtzio horiek, azalari behatzean martxan ipintzen ditugun bezala, edozer hormirudi, komiki, marrazki, gelako egoera eta abarretan martxan jartzeko aukera dugu. Gogoan izan behar dugu, hizkuntza garatzeko asmoz, erabili egin behar direla eta egunero gelako bizitzako mila egoera (arazoak, liskarrak, deskribapenak, kontaktak...) egoki aurkituko ditugula funtzio jakin bat martxan jartzeko.

3. ORAINGO ETA LEHEN BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIEN KONTAKETA

- 3.1. Xehetasunen aipamena.
- 3.3. Izandako gorabeheren aipamena.
- 3.4. Gertakizunen sekuentzien aipamena.
- 3.5. Konparazioak egitea.
- 3.6. Elkarrekin zerikusia duten gauzen ezagutza.
- 3.7. Gorago aipatutako ezaugarrietako batzuk erabiliz, azterketa bat egitea.
- 3.8. Gertakizun baten esanahi nagusia ateratzea edo ezagutzea.
- 3.9. Esperientzien esanahiei buruzko hausnarketak egitea, haurraren beraren sentimenduak barne.

4. ARRAZOIBIDE LOGIKORANTZ

- 4.1. Prozesu baten azalpena.
- 4.2. Harreman kausalak eta menpetasunezkoak ezagutzea.
- 4.3. Arazoak ezagutzea eta horien irtenbideak ezagutzea.
- 4.4. Iritziak eta ekintzak arrazoitzea.
- 4.5. Gertakizunei buruzko hausnarketa egitea eta ondorioak ateratzea.
- 4.6. Hastapen edo printzipioen ezagutza.

5. IRAGARRI

- 5.1. Gertakizunen aurreikuspena eta horiei aurrea hartzea.
- 5.2. Gertakizunen zehaztasunei aurrea hartzea.
- 5.3. Gertakizun-sekuentzia batzuk aurrez adieraztea.
- 5.4. Arazoak aurreikustea eta horiek izan ditzaketen irtenbideak aurkitzea.
- 5.5. Ekintza-maila alternatiboak aurreikustea.
- 5.6. Ekintza edo gertakizunen ondorioak aurrez ateratzea.

6. PROIEKTATU

- 6.1. Besteen esperientzietarako proiektzioa.
- 6.2. Besteen sentimenduetarako proiektzioa.
- 6.3. Besteen erreakzioekiko proiektzioa.
- 6.4. Bizi izan ez diren egoeretarako proiektzioa.

7. IMAJINATU

- 7.1. Bizitza errealean oinarritutako irudimenezko egoera bat kontatzea.
- 7.2. Ameskerietan oinarritutako irudimenezko egoera bat kontatzea edo azaltzea.
- 7.3. Asmatutako istorio bat kontatzea edo antzeztea.

Hona hemen, aurreko orrialdean esandakoaren adibidea komikia landu ahal izateko.

3. ORAINGO ETA LEHEN BIZI IZANDAKO ESPERIENTZIEN KONTAKETA

- *Zer pertsonaia agertzen dira komikian?*
- *Nor joan da Mainerren bila geltokira?*
- *Nola laburbilduko zenuke komikian gertatzen dena?*
- *Kontatu bineta bakoitzean gertatzen ari den ekintza nagusia.*
- *Zure ustetan zein dago alaiago, Mei Li edo Xabier? Edo biak berdin? Zergatik?*
- *Zer zerikusi dute lehenengo eta bigarren binetako pentsamenduek?*
- *Zertan ari da Xabier lehenengo binetan? Zuk ere ba al dituzu zure betebeharrak etxean? Gustatzen al zaizu enkarguak egitera joatea?*

4. ARRAZOIBIDE LOGIKORANTZ

- *Bosgarren, seigarren eta zazpigarren binetetan zer gertatzen da?*
- *Zein dira zazpigarren binetan agertzen diren beste pertsonaia horiek?*
- *Maidar larritua dago agian ez delako inor bere bila etorriko. Zer egingo zenuke?*
- *Zergatik uste duzu Xabier eta Mei Li Mainerren bila joan direla?*
- *11. binetari erreparatuta, nola dago Maidar? Nola sentitzen da?*

5. IRAGARRI

- *Azkeneko binetara begiratuta, zer erantzungo diotela uste duzue Xabierrek eta Mei Lik Mainerri?*

6. PROIEKTATU

- *Nola agertzen du Mainerrek ama maite duela?*
- *Nola agertzen du amak Mainer maite duela?*
- *Bidaia edo udaleku batzuetatik etorri bazara inoiz, gogoratzen al duzu etxezoek nola jaso zaituzten? Gogoko izan al duzu jarrera hori?*

7. IMAJINATU

- *Inoiz udaleku batzuetara joango edota bidaia bat egin eta etxera bueltatuko bazina, nola gustatuko litzaizuke etxezoek eta lagunak zu jasotzea? Azal ezazu.*

Solasaldiaren ostean, pertsonaien banaketa adostu eta, talde handian, ozeneko irakurketari ekingo diogu, hizkuntzaren baliabideei emango diegu garrantzia.

Komenigarria da ikasleei birgogoratzea arreta berezia jarri beharko dietela elementu prosodikoei (intonazioa, etenak, bolumena...), ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gainera doinuaren garrantzia azpimarratuz.

8. Komikia dramatizatzen

Lan egiteko era: Talde txikian

Nahi izanez gero, komikiaren irakurketa dramatikoaren ostean, edo haren alternatiba gisa, komikia dramatiza dezakezue. Horretarako, ikasleek komikiko egoera antzeztuko dute, baina euren hitzak erabilita, eta tarteka inprobisazio txikiak eginda.

9. Tradiziozko abestia entzutea: “Gure bazterrak”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, abestiak, 1. pista

Abestia entzungo dugu talde handian, betiko pausoei jarraituz:

1. Entzun eta musikaz eta erritmoaz gozatu. Galdetu hurrei ea zer instrumentu bereizten dituzten ahotsaz gainera.
2. Entzun eta letra irakurrita mezuaz edo gaiaz jabetu, eta, gero, horren inguruko elkarrizketa bultzatu: ideia nagusia zein den eztabaidatu denon artean, zergatik proposatu diguten abesti hau entzutea...
3. Ondoren, abestian aipatzen den bazter miresgarriari erreparatuz, bakoitzak berea marrazteari ekin diezaioke.
4. Abesteko aukera dugun guztietan letra aurrean dugula abesteari ekingo diogu, abestia buruz ikasi arte.

10. Aurre-ezagutzak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 6. or.

Orrialde hau, aurre-ezagutzei dagokiena denez, horiek martxan ipintzeari ekingo diogu. Hasteko, ikasleei orrialde horretan jartzen duena irakurtzeko eta hausnartzeko tarte emango diegu. Ondoren, berriro ere orrialdearen hasierara joan eta bertan proposatzen dizkiguten ariketak eta galderak erantzuten saiatuko gara.

Hiru ariketa proposatzen dira: lehenengo biak talde handian eta ahoz lantzekoak dira. Hirugarrenak, berriz, ikasle bakoitzak gai horri buruz dakienaz hausnartu eta erantzuna idatziz eman behar du. Hori egin ondoren, idatzitakoari buruz hitz egingo dugu. Aurre-ezagutzak partekaturik, ikasleek dakitenaz jabetuko gara, eta gai jakin bati buruzko okerreko ideiak badituzte, horiek ere lantzeko aukera paregabea izango dugu.

11. Proiektuaren aurkezpena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 7. or.

Proiektuaren aurkezpena egiten den orrialdean, bonbilla handi bat agertuko zaizue proposatzen den proiektuaren argibideekin batera. Kasu honetan, proiektua norberaren edo ikastola kokatua dagoen herri edo hiriaren eskualdeko azterketa egitea litzateke.

Ziurtatu ikasleek badakitela zer den egin behar dena eta zeri buruzko informazioa ekarri behar duten txoko zurira.

Proiektua unitatea landu ahala burutzen joango zaretenez, orrialde ezberdinetan, bonbilla txiki baten ondoan, proiekturako baliagarria izan daitekeenaren argibideak emango zaizkizue. Orrialde honetan, talde handian, proiektuaren izaera argituko dugu eta baita hori burutzeko bete beharreko urratsak ere.

12. Ikasnorabidea

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. eta 9. or.

Ikasnorabideak ematen dio bukaera hasierako jardueren multzoari. Hirugarren mailan bezala, aurten ere, unitate bakoitzaren ikasnorabidea aurkituko duzue beti bi orrialde hauetan. Nahiz eta proiektu honetan edukiak modu globalizatuan eta era integratuan azaldu orrialde ezberdinetan zehar, ikasnorabidean, goitik beherako irakurketa batean, hiru bloketan bereizita agertuko zaizkizue: lehenik, ingurumenari dagozkion eta landuko diren eduki nagusiak; hizkuntzari dagozkionak, ondoren; eta, azkenik, arte hezkuntzari dagozkionak.

Irakurketa bertikalaz gainera, ikasnorabidea horizontalki irakurtzeko pentsatuta dago. Irakurketa horrek sekuentziaren atal bakoitzean zer landuko den jakitea ahalbideratuko du, bai ingurunean, baita hizkuntza eta arte hezkuntzan ere. Atal bakoitza kolore batekin bereizita dago.

Jadanik, 3. mailan ikasnorabide asko ikusi eta landu dituzte; beraz, orain, ikasturteko lehenengoa izanik, gogora ekarriko dugu orrialde haiek zertarako irakurtzen genituen eta baita nola eta noiz irakurri behar genituen ere.

IKASNORABIDEA

Ikasnorabidearen funtzioa eta helburua ikasleek ikasten ari direnaz jabetzea da, ikasketaren auto-erregulaziorako balioko dien tresna izatea. Landuko dutena aldeztu aurretik ezagutuz, zer, nola eta zertarako ikasiko duten, eta landu ostean, ikasitakoari zentzu berria emateko aukera izango dute. Beraz, joan-etorrian erabiliko dugun tresna izango da.

Lehenengo irakurketa batean, ingurune arloko irakurketa bertikala egitea proposatzen dizuegu, ikasleak jabe daitezten, unitatearen sekuentzia tematikoa nondik norakoa den.

Ondoren, garapenean sartu eta gaia lantzen hasi aurretik, lehenengo atalaren irakurketa horizontala egitea proposatzen dizuegu. Behin unitatearen garapenean murgilduta eta gaia lantzen hasita, atal bakoitza bukatzean, berriro ere ikasnorabideari erreparatuko diogu, landutakoari zentzu berria emanez. Hala ere, edozein jarduera egiten ari garela ere, jakin ezazue edozein memento izan daitekeela egokia ikasnorabidera jotzeko, egiten ari garenaz jabetzeko asmoz. Horrekin, ikasleak metakognizioaren lehen urratsak ematen ari direla esango genuke, eta hasieran ikasnorabidearen interpretazioa zaila gertatzen bazaie ere, gerora begira oso baliagarria suertatuko zaie. Horregatik, komenigarria da, DIN A-3 batean koloretan unitatearen ikasnorabidea, plastifikatu eta gelan begi-bistan izatea.

13. Txoko zuria

Lan egiteko era: Talde handian

Behin ikasleek argi dutenean zein den egingo duten proiektua eta baita proiektu hori burutzeko zer ikasi behar duten ere, txoko zuria hornitzen hasteko unea heldu da. Hau da, taldean hitz egin ezazue bakoitzak gaiarekin zerikusia duen zer elementu izan dezakeen etxean gelara ekartzeko. Materiala ekarri ahala, txokoan jarriko dugu. Ikasle bakoitzak berak ekarritako materiala talde handiari aurkeztea komenigarria da, gela guztiak txokoan dagoenaren berri izan dezan eta erabil dezan behar duenean edo egoki ikusten duenean. (Gogoratu turismo bulegoetan material interesgarria lor daitekeela).

14. Etxekoentzat eskutitza

Lan egiteko era: Talde handian

Aurreko ikasturteetan bezala, hiruhilekoa hasten denean, landuko diren gaien sekuentzia adierazten duen eskutitza bidaliko diegu gurasoei. (ikus web-orrian, gidak, gurasoen atalean). Bide batez, “Txoko Zuri”rako materiala eskatzeko aprobeixatuko dugu. Ikasleei adierazi zein den gutun horren edukia, eta dagoeneko ikasnorabidea pixka bat ikusi dutenez, etxekoei egingo dugun lanaren berri eta “Txoko Zuria” hornitzeko beharra adieraz diezaieten eskatu.

15. Gure eskualdea kokatzen eta bertan orientatzen

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. eta 11. or.

Gaiaren lehenengo atalean murgildu aurretik, ikasnorabidera joko dugu ikasiko dugunaren kontzientzia izateko. Atala bukatzean ere gauza bera egin dezakegu, atala landutakoan, ikasnorabide berak ere beste zentzu bat har baitezake ikasleentzat.

Ikasleek, bakarka, unitateko jarduerak osatu ondoren, talde handian berrikusiko ditugu. Lehenengo jarduerak azalpen-testu bateko informazio zehatzen bilaketan trebatzeko aukera ematen digu eta bigarrenak, berriz, mapen behaketa lantzeko aukera, behaketa galderen bidez bideratuz.

Eskualdeei dagokienez, Bizkaia eta Gipuzkoan hitz horrekin ezagutzen badira, Nafarroan merindade esaten zaie eta Araban kuadrilla.

16. Lan-koadernoari hasiera emateko olerkia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: 7. lan koaderno, 3. or.

Bakarkako irakurketa eginez, Joxean Ormazabalen olerkia gozatzeko aukera izango dute ikasleek. Ondoren, talde handian, olerkian aipatutakoaz hitz egingo dugu, mezuaren edo gaiaren inguruan.

Gero, olerkia errezitatzeko aukera emango diogu ikasleren bati, ahoskeraren eta intonazioaren garrantzia azpimarratuz eta zainduz.

Bukatzeko, ikasleek norberaren izen-abizenak idatziko dituzte lan-koadernoan.

17. Eskualdeari buruzko edizio lana

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 7. lan-koaderno, 4. orrialdetik 11.era

Testu bat ekoizteko orduan, garrantzitsuena testuaren edukia bada ere, ezin ahaztu testu hori aurkezteko moduak, formatuak alegia, testuaren irakurketa eta haren ulermena erraztu edo zaildu baitezakete. Hori dela-eta, eta ikusirik ikasleek hainbat monografiko egin beharko dituztela maila honetatik aurrera, egoki ikusi dugu, ikasleari modu esplizituan edizio-lanak nola egiten diren erakustea eta horretarako beharko duten txantiloia eraikitzea.

Oharra: Lan-koadernoko 19. orrialdean, bi puntuei buruz hitz egiten denean, hor agertzen direnez gainera, badira beste bi kasu aipatu ez ditugunak, batez ere, ikasleei ulertaraztea zailak iruditzen zaizkigulako. Zuentzako interesgarria izan daitekeelakoan:

- Loturarik gabeko bi esaldiren artean, lehena bigarrenaren azalpena bada.

Adib.: Egun hauetan hotz handia egiten du: hona guztion kexa.

- Testua aurreko esaldiak nolabait biltzen dituen batez amaitzen denean.

Adib.: Batzuek hamar behar zituztela, beste batzuek hamabi, hogeit esaten zuenik ere bazen: guztiak zeuden zerbaiten beharrean.

18. CD-ROMarekin ortografia lantzen

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: CD-ROMa.

CD-ROMean hainbat dira aurkituko dituzuen jarduerak puntuazio-marken erabileran trebatzeko. Jakina da ikasleen beharrak ezberdinak direla eta CD-ROMak aukera ematen digu aniztasun horri erantzuteko. Ezin aipatzeke utzi, sistematizazioaren beharra duten ikasleentzat zein beharrizan berezirik ez dituzten ikasleentzat diseinatua dagoela, hori bai, erabilera irakasleak erregulatu beharko du, ikasle bakoitzak duen beharren arabera.

19. Euskal Herriko mapa fisikoa eta eskualdeena eta administratiboa aztertzen

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 12. eta 13. or.

Mapa fisiko eta politikoen behaketa bideratuko dugu bi orrialde horietan zehar galderen bidez. Mapa bakoitzean agertzen diren elementuak identifikatu eta izendatzeaz gainera, zeinu argigarriak eta mapen koloreak ere interpretatzen saiatuko gara. Ekar itzazue mapa horiek gelara eta, talde handian, parteka ezazue behatutako guztia. Ziurrenik, zuen ekarpena beharrezkoa izango da haurrei hainbat elementu (erliebea adierazten duten kolore bakoitzaren esanahia, etab), ihes egingo baitie. Horretarako, oso lagungarri gerta dakizueke Euskal Herriko erliebedun mapa, ikusmenaren bidez beha daitekeena ukimenaren bidez nabarmendu baitaiteke. Gero, ikasle bakoitzak, bakarka, bere unitatean jarduerak osatzeari ekingo dio. Mapa bakoitzaren bereizgarriak argi izanik, ikasleek euren hitzak erabiliz definitu beharko dute mapa bakoitza. Irakur itzazue definiziook talde handian eta hitz egin ezazue bakoitzaren balioaz, zuzenak diren, behar beste informazio ematen duten, informazio hori zehatza den...

Bukatzean, talde handian, bi mapa hauek ahoz konparatzeari ekingo diogu, baina, alde zurretik, konparazio-testua egiteko eman daitezkeen urratsak zein diren jakiteko, lan-koadernoko jarduera irakurriko dugu.

20. Konparazio-testua

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 7. lan-koadernoa, 12. orrialdetik 15.era

Jakina dugu, ikasleek ezagupenak ez dituztela pilatzen bata bestearen atzean, errealitateaz jabetzeko, erlazioak eraikitzen dituzte elementu ezberdinen artean, sareak eraikiz. Erlazioak egiteko modu bat elementu ezberdinak konparatzea da, eta euren arteko berdintasunaz eta ezberdintasunaz jabetzea. Aurten konparazio-testua landuko dugu unitate ezberdinetan zehar; oraingoan, bi elementuren artekoa eginez eta, aurrerago, hiru eta, gero, lau elementuren arteko konparazioak eginez.

Lan-koadernoko jarduerak konparazio-testua egiten ikasteko urratsak erakusten dizkigu, eta testu hori modu zuzenean idazteko erabil daitezkeen lokailu, aditz eta testu-antolatzaileen berri ere ematen digu. Jarduera honetan, ikasleari bi mapen arteko ahozko konparazioa egiteko eskatzen zaio, ez idatzi duen modura errezitatuz, baizik eta nork bere hitzak erabiliz eta hizkuntzari dagozkion elementuen erabilpen zuzena aplikatuz.

21. Errepide-mapa eta zeinu konbentzionalak

Lan egiteko era: Talde handia/Talde txikian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 14. eta 15. or.

Irteera gauzatzeko behar dugun informazioa zein mapa motak adierazten digun ondoen jakiteko mapak aztertzen ari garenez, errepide-maparen behaketa eta azterketa ere egingo dugu, era partekatuan, hau da, talde handian. Beraz, eska iezaiezue ikasleei errepide-mapen bat ekar dezaten etxetik:

- *Zein elementu ageri dira mapa honetan?*
- *Zeren bidez adierazten da elementu bakoitza? Zeinu argigarri bakoitza interpretatu eta adierazten duenaz hitz egin.*
- *Ikusi al duzu inoiz horrelako maparik? Non? Zertarako balio dutela uste duzu?*
- *Hartu denbora mapa horren erabilpenean trebatzeko; lehenengo, talde handian eta, gero, talde txikietan treba daitezela:*
 - *Imajinatu gu Larrabetzun gaudela eta Bilbora joan nahi dugula, Zer bide hartuko genuke? Errepide bat baino gehiago al dago toki berera heltzeko? Nola edo zeren arabera erabaki dezakegu zer bidetatik egin bidaiara?...*

Unitateko jarduerak osatu ostean, taldean, gure ibilbidea antolatzeke garrantzitsuak diren datuak adostuko ditugu eta, gero, talde txikietan nahiz talde handian, proiekturako gure eskualdearen mapatxoak osatuko dugu, liburuan adierazten zaizkigun urratsei jarraituz. Bukatzean, ikasle bakoitzak bere aldizkaritxoan jarriko duen mapa marraztuko du.

*Oharra: Mapa hau ikasleek bakarka osatu dezaten, 11. orrialdean agertzen den mapan zuen eskualdeari dagokion zatia handitu dezakezue eta fotokopiatu. Bestetik, interesgarria, eta ikasleentzako lagungarria ere izango litzateke, gelako pareta batean, munduko mapa, Europakoa, EH-koa, zuen probintzia eta eskualdeko maparen fotokopia ere jartzea, gaia lantzen ari zareten bitartean, ikasleak jabe daitezuten euren herri eta eskualdearen kokapenaz, orokorrean aztertuta.

22. Komunikabideak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.

Irteera planifikatzeko orduan, irteera bera baldintza dezaketean hainbat muga aurki ditzakegu, adibidez, herrien arteko komunikazioa, garraio publiko eza, alegia. Beraz, eskualdeko garraio publikoen eskaintzari buruzko informazioa bildu, aztertu eta alde onak eta ez hain onak balioetsi ondoren, bisitatu ditugun herriak zein izango diren erabakiko dugu talde handian. Erabaki horrekin, gure proiekturako orria prestatuz joango gara, ibilbidea eta garraioak bertan adieraziz.

23. Hitz-errota

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 16. or.

Garraio publikoen azterketa egin berri dugu, eta garraio pribatuen inguruko informazioa bildu eta bi garraio mota hauen inguruko hitz-errota martxan jarriko dugu, bakoitzaren alderdi onak eta txarrak aipatuz, erlazionatuz eta balioetsiz. Ikasturte honetako lehenengo hitz-errota dugunez, gogora ekarriko ditugu jarraitu beharreko urratsak.

- Eseri biribilean.
- Irakasleak egingo du moderatzaile-lana.
- Hizpide izango dugun gaia: garraio publiko eta pribatuen alderdi onak eta txarrak.
- Hitz egiteko txanda errespetatu behar da.
- Iritzia ematen hasi baino lehen, bost minutu izango dituzu gaiari buruz pentsatzeko, eta, nahi baduzu, gero esan beharrekoa ez ahazteko apunteren bat hartzeko aukera ere izango duzu.
- Hizlari bakoitzak bere iritzia adieraziko du. Gainerako entzuleak hark esandakoarekin ados badaude, edo ez badaude, moderatzaileari hitza eskatuko diote, eta hitza ematen dietenean aukera izango dute bere iritzia emateko eta iritzi hori arrazoitzeko.
- Gogoratu oso garrantzitsua dela guztien iritziak biltzea eta denek parte hartzea.

Edozein dela ere eztabaidagaia, garrantzitsua da ikasleak kritikoa izateko gaitasuna garatzea, euren iritzia modu egokian (adierazpen-hizkuntza eta tonu aldetik nahiz jarrera aldetik) adieraztea, besteen iritziak errespetatzen jakitea, azken batean, iritziak zuzentasunez trukatzeko ikastea. Gogorarazi ikasleei oso garrantzitsua dela txandak errespetatzea eta hitza eskatzeko eskua altxatzea, irakasleak bere izena apunta dezan eta dagokionean hitz egiteko bidea izan dezan.

Garrantzitsua da jakitea hitz-errota baten helburua iritzi ezberdinak daudela ikustea ere badela, iritzi horren oinarrian zer argudio dauden, eta ez horrenbeste kontrako iritzia dutenak gureaz konbentzitu nahia. Gure argudioak sendoak badira, gerta dakieke iritzi aldaketak, baina aukera hori euren baitan egongo da, ez norberarengan.

Interesgarria da hitz-errotaren hurrengo egunean edo, berriro ere gogora ekartzea hitz egindakoa, eta ikasleei galdetzea ea aurreko egunean esandako iritzi bera mantentzen duten oraindik edo zalantzan jarri duten edo aldatu duten eta baita zergatik ere. Hori guztia egin ondoren, irteeran zer garraio mota erabiliko dugun birplanteatzeko balioko du edo eta, besterik gabe, hartzen dugun erabakiaren kontzientzia izateko.

24. Bide-hezkuntza. CD-ROMa

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: CD-ROMa

Bide heziketa lantzeko, trafiko seinaleen inguruko jardura bat duzue CD-ROMean. Oraintxe duzue aukera erabiltzeko.

25. Irakurzaletasuna

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Binaka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or.

Martinek literatur tailerrean proposaturiko liburuari erreparatuko diogu, liburuetan agertzen den informazioaren behaketa eta identifikazioa eginez, aurreko eta atzeko azalean dagoen informazioaz ere jabetzeko: idazlea nor den, marrazkilaria, zer sailetako liburua den, etab. Baina gelako liburuei behatzen hasi aurretik, aurrezagutzak martxan ipiniko ditugu, lehen zikloan ere behin eta berriro aritu baikin horrelako informazioari ere arreta jartzen.

- *Ba al dakizue liburuen aurreko eta atzeko azaletan, bai barrualdetik zein kanpoaldetik, zer informazioa mota agertzen den? Ba al dakizue zer den saila edo bilduma?...*

Gero, ekin iezaiozue gelako liburuak behatzeari, behaketaren ondoren, irizpide ezberdinen arabera sailka ditzakezue liburuak; idazle berberak idatzitakoak, bildumen arabera, marrazkiliaren arabera, argitaletxe berekoak...

Aprobetxa ezazue aukera, bai liburutegia antolatzeko eta baita ikasleek liburutegian dituzten ipuin edo liburuak ezagut ditzaten ere.

Martinek esku artean erakusten digun liburua, “Arranopola” (Yak Rivais, Elkarlanean) ipuin-bilduma da. Unitate honetan, ipuin-bilduma horretako “LURPEAN IBILTZEN ZEN NESKATOA” irakurtzea proposatzen dizuegu. Ipuin horretako protagonistak iparrorratza erabiltzen du lur azpian orientatzeko.

Ipuina irakurri ondoren, horren inguruko elkarrizketa buru dezakezue talde handian. Gustukoa izan duten, zer gustatu zaien gehien... Nahi izanez gero, elkarrizketari dagokion alderdiren bat modu berezian lantzeko aukera ere baduzue.

Beste aukera ipuinari buruzko iritzia haurrek idatziz adieraztea da.

26. Hitz elkartuen esanahia aztertzen

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 17. or./7. lan-koadernoan, 16. or.

Ipuinean iparrorratza hitza agertzen denez, haren esanahiaz jabetzeko, hitz elkartuak zer diren eta nola eratzen diren landuko dugu, lan-koadernoan. Horrez gainera, iparrorratza hitza hiztegiaren bilatu beharko dugunez, hiztegiaren erabilpenari dagokionez, beste urrats bat irakatsiko diegu ikasleei: hitz baten definizioan, ulertzen ez ditugun beste hitz batzuk ager daitezkeela, eta haien esanahia argitu izan ezean bilatzen ari garen hitzaren definizioa nekez ulertuko dugula, alegia.

27. Puntu kardinalak zer diren argitzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. or.

Ikasleek, puntu kardinalak buruzko informazio-testua bakarka irakurriko dute eta informazioa kontzeptu-mapa bidez adieraziko. Baina, lan horretan hasi aurretik, gogora ekarriko dugu zer den kontzeptu-mapa (sintesia-teknika), zertarako erabiltzen den, nola eratzen diren eta nola irakurri behar diren.

Idea garrantzitsuenak adierazteko kontzeptu-mapa ere erabil daitezke. Ideien edo kontzeptuen arteko erlazioak labur eta erraz islatzeko sistema da kontzeptuen mapa.

Esaldi bateko hitzetatik irudien bidez adieraz daitezkeenei KONTZEPTU deitzen zaie.

Irudikatu ezin diren hitz horiei LOTURAK deitzen zaie. Hau da, kontzeptuen edo ideien arteko erlazioa adierazten duten hitzei. Lotura horiek, euskaraz hobeto irakurtzeko, galderen bidez adieraz ditzakegu.

(Hori guztia 3. mailako 5. lan koadernoko 24. orrialdean agertzen da)

28. Iparrorratza eraikitzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 18. eta 19. or.

Iparrorratza eraiki aurretik, interesgarria da irakasleak edota ikasleek, etxetik, iparrorratzen bat ekartzea, zuzeneko behaketa egiteko eta haren erabilpenean trebatzeko. Litekeena da, ekarritako iparrorratzek ikur ezberdinak izatea. Txanela proiektuak, puntu kardinalak adierazteko orduan, euskarazko ikurrak jartzearen alde egin badu ere, ohikoena, iparrorratzetan gaztelarazko edo ingelesezko nazioarteko ikurrak aurkitzea da. Horregatik, interesgarria da, taldean, ikurrei behatzea, horiek interpretatzea eta alderatzea.

	Euskaraz	Gaztelaraz	Ingelesez
Iparralde	I	N	N
Hegoalde	H	S	S
Ekialdea	E	E	E
Mendebalde	M	O	W

Liburuko jarraibide-testuko materiala bildu ostean, ikasle bakoitzak bere iparrorratza eraikitzeari ekingo dio. Iparrorratzak, izenak adierazten duen bezala, beti iparra seinaleztatzen du; ea, bada, gure ikasleek eraikitzen dituztenek ere hala egiten duten.

29. Irakurgaietako sarrerako olerkia irakurtzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 4. or.

“Irakurgaiak 4” liburua lehen aldiz erabiltzera goaz eta, lehenik eta behin, sarrerako olerkia irakurriko dugu, liburuaren ongi etorri orria.

Bakarkako irakurketa eginez, Joxan Ormazabalaren olerkiarekin gozatzen saiatuko gara. Ondoren, talde handian, olerkian aipatutakoak hitz egingo dugu, mezua eta gaiaren inguruan.

30. Puntu kardinalen olerkia irakurtzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 5. or.

Bakarkako irakurketa eginez, Joxan Ormazabalen olerkiarekin gozaten eta letrak esandakoaz jabetzen saiatuko gara. Ondoren, talde handian, abesteari ekingo diogu (“Andre Madalen” doinua ondo egokitzen zaio). Gero, ikasleak talde txikietan jarriko dira eta abestiari koreografia, keinu edo dantzatzko baten antzekoa, asmatzeari ekingo diote. Handik egun batzuetara, talde bakoitzak asmatutakoa talde handiari dantzatuko dio. Gero, denok dantzatuko dugu denona.

31. Iparrorratza erabiltzen

Lan egiteko era: Talde txikian/Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.

Iparrorratza erabiltzen trebatzeko, liburuan agertzen zaizkigun jarduerak egingo ditugu, hiru nahiz binaka. Bukatzean, talde handian, esperientziari buruz hitz egiteko elkarrizketa bultzatuko dugu.

32. Elkartasun-jolasa

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 19. or.

Lehenengo mailan hasi eta Lehen Hezkuntza osoan lantzen jarraituko duten elkartasunean oinarritutako jolasak ditugu hauek. TXANELA proiektuaren helburu nagusia ikaslearen garapen integrala (garapen motorea, kognitiboa, komunikatiboa, afektiboa eta gizarteratzekoa) izanik, garrantzi berezia eman nahi izan diegu jolas hauei, hainbat prozesu sozial, emozional eta kognitibo martxan jartzen direlako eta prozesu horiek zuzenki erlazionaturik daudelako ikaslearen garapen global eta integralarekin.

Taldean, elkartasunezko elkarrekintza bultzatzea, hurren jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatzea, eta gainerako kideekin batera lan egitea da garatu nahi dena, helburu bakar eta bera lortzeko, eta indibidualismoan eta kompetitibitatean oinarritutako hezkuntza eredua saihestea.

Hasteko, tartetxo bat emango diegu ikasleei jolasa irakur dezaten. Ondoren, erritualak diren hiru uneak gogora ekarri eta jolasari ekingo diogu:

Sarrera: Korroan jezarrita, jolas kooperatiboen oinarritzko ideia eta helburua birgogoratuko ditugu (adiskidetsu jolastea, elkarri laguntzea, kooperatzea...).

Garapena: Jolasa nola egin behar den argitu eta jolasteari ekin.

Berbalizazioa-erreflexioa: Biribilean jesarrita, esperientziari buruz hitz egingo dugu, eta sentimenduak, zailtasunak, sortu diren arazoak, kooperazioak dituen onurak, etab. Aipatuko ditugu.

- Zer moduz moldatu zarete iparroratzarekin? Mapan adierazitako norabideak ongi al zeuden? Zailtasunik izan al duzue altxorra bilatzeko? Gaur jolas honen bidez ikasitakoak bizitzan zerbaitetarako baliagarria izango zaizuela uste al duzue? Noiz eta zertarako? Gustura jolastu al zarete? Zer moduz moldatu zarete talde kideon artean?

...?

33. Eskualdeko herriak aztertzen

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 20. orrialdetik 22.era

Unitateko atal berrian sartzera goaz, eta ikasnorabidera joan-etorria egingo dugu. Lehenik, bukatu dugun atalean zer egin dugun berrikusiko dugu eta, ondoren, aurretik daukagunari so egingo diogu.

Ikasleek, gai baten inguruan informazioa behar badute, hainbat informazio-iturritara zuzentzen (entziklopedia, turismo bulegoa...) ikasi beharko dute.

Informazioa bilatzen, irakurtzen, ulertzen, irakurketa-helburuaren arabera kritikoki aukeratzen, eta behar dutenerako egokitzen edo eraldatzen ikasi beharko dute. Informazioaren bilaketa eta trataera une horri garrantzi handia eman behar zaio, azkeneko produktuak baino garrantzi handiagoa hartzen baitu, adin honetan, prozesuak berak, arestian aipatutako urrats horiek guztiak zuzen ematen ikastea, alegia. Beraz, eman iezaiozue denbora informazioa tratatzeko une horri eta, talde handian, landu prozesu hori, urrats bakoitzaren garrantzia azpimarratuz eta estrategiak landuz.

Atal hau burutzeko hainbat urrats eman baditzakezue ere, guk hurrengo hau proposatzen dizuegu:

- Bildutako informazio guztia jarri txoko zurian.
- Aukera ezazue atal guztietatik bat, adibidez, lehenengoa, herrietako toki eta eraikin interesgarriena, eta, talde handian, idatz itzazue ideia nagusiak arbelean.
- Ondoren, ordena itzazue ideia guztiak, agian, kontrol zerrendatxoren bat egitea ez legoke gaizki, ideia horiek zeren arabera ordenatuko dituzuen argi izateko.
- Gero, esaldiak idazteari ekin iezaiozue, ideien arteko loturak egiteko antolatzaileak erabiliz.

Behin testua idatzita duzuenean, berrikusketa egin ostean, ikasleek, bakarka, euren proiekturako orria idatz dezakete, txantiloia erabiliz.

Kirola eta Naturari dagokion atala ere denon artean eta prozedura berari jarraituz egitea proposatzen dizuegu, aberatsa izan baitaiteke eredu bat baino gehiago ikuste eta, taldean, modu partekatuan, eraikitzen ikastea.

Gainerakoekin, irakasleak ikusiko du nola kudeatu, talde txikietan izan daiteke aukeratako bat, edo ideiak denon artean ordenatu eta azalpen testutxoak, berriz, bakarka osa dezakete, edota aukeran ipini, atal bakoitza modu batean baino gehiagotan kudea dezaten.

Bestalde, dakizuen bezala, “Argitxo”ren irudia, hausnarketa soziolinguistikorako bidea irekitzeaz gainera, euskararen erabileraren bultzatzailea dugu. Jarduera honetan, euskalkiak eta aldaerak aipatzen dizkigu, hari buruzko informazioa bil dezagun. Bil ezazue informazio hori eta adieraz ezazue zuen proiektuan, eta, horrez gain, ez ezazue aukerarik galdu zuen ikasleekin euskararen erabilpenari buruzko elkarrizketatxoa izateko eta euskararen erabilpena sustatzeko.

Ugari dira euskaldunokin eta euskararekin zerikusia duten abestiak; guk horietariko bat taldean abestea proposatzen dizuegu, euskalkien gaiarekin lotura zuzena baitu (Txanela 3, Abestien CDa, 21. pista).

Araban bagare,
Gipuzkun bagera,
Ziberun bagire,
ta Bizkaian bagara;
baita ere Laburdin ta Nafarran.

Guztiok gara euskaldun,
guztiok anaiak gara,
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera (bis).

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez gaitun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
bagire, bagara,
euskera askatzeko
oraintxe dugu aukera.

34. Ezizenak

Lan egiteko era: Talde handian/Bibaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.

Hasteko, “ezizen” hitzari erreparatuko diogu, “ez izen”, eta bere esanahiaren inguruan elkarrizketa bultzatuko dugu. Ondoren, talde handian, liburuko jarduerak irakurtzeari eta horren inguruan hitz egiteari ekingo diogu.

Gero, binaka jarrita, hiztegian herri bakoitza zer probintziatakoa den bilatu beharko dute, eta herriak probintzika sailkatu. Herrien ezizenak aipatzerakoan, konturatuko zineten, arabarrak eta zuberotarrak ere aipatzen direla, probintziak izan arren, horregatik dute ikur hori aldamenean; ea ikasleak konturatzen diren horretaz, bestela, ohartarazi esandakoaz.

Oharra: “manex” hitzaren esanahia argitzeko asmoz, hona Harluxet hiztegi entziklopedikoak dioena:

manex hitzak duen sarrera kopurua: 2

manex izond. (Z) Zuberotarrentzat, baxenabartarra edo lapurtarra; Zuberoakoa ez den euskara.

manexina iz. (Z) Zuberotarrentzat, baxenabartar edo lapurtar emakumezkoa.

35. “Herriko jatorrak”

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 6. eta 7. or./CDa, abestiak, 2. pista

Talde handian, “Herriko jatorrak” abestia irakurriko dugu, eta letraren (Zarauzko herriko ezizenen zerrenda amaigabea) inguruan elkarrizketa bultzatuko dugu. Gero, abestiaren letra aurrean dugula, CDa entzuteari ekingo diogu, eta harekin batera abesten saiatuko gara.

Haurrei grazia egingo dien “pasadizoa”:

Iritsi omen zen herrira bizitzera kanpotar bat eta herritar guztiek ezizena zutela konturatu zen. Faborez berari ezizenik ez jartzeko eskatu omen zuen behin eta berriro. Ez zen denbora asko pasa “Xinmote” deitzen hasi zitzaizkionerako.

36. Pernando amezketarraren pasadizoak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 4, 8. eta 9. or.

Herrietan gertatzen diren komerietz ari garenez, tartetxo bat emango diegu ikasleei irakurgaietan dituzten Pernando amezketarraren pasadizoak irakurtzeko, baina, aldez aurretik, galdetu egingo diegu ea badakiten nor den edo berari buruz zerbait entzun ote duten. Bakarkako irakurketa bukatu ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu pasadizoetan gertatutakoari buruz hitz egiteko.

Bukatzean, talde txikiak egingo ditugu, pasadizoetan agertzen diren pertsonaien araberakoak eta hiru jardueretan trebatze-lanak egin. Jarduera bakoitza azaldu eta talde handian argitu ostean, talde bakoitzak nahi duena aukera dezala, horretan trebatzeko; nahi izanez gero, egindako lana norbaiti aurkez diezaioketue edota gelan bertan aurkeztu:

- Egoera dramatizatu: Egoera bakoitzak eskatzen duen gorputz- eta aurpegi-keinuak adostu eta entseatu ostean, ikasleek, euren hitzak erabiliz, dramatiza dezakete pasadizoa.
- Pasadizoen irakurketa dramatikoa egin: Puntuazio-markak ondo aztertu, irakurketan trebatu (doinua, erritmoa, bolumena, etendurak...), etab. egin ondoren, irratian kontatzen diren istorioa balitz bezala, haren irakurketa egiteari ekin diezaiokete ikasleek.
- Pasadizoen kontaketa: Testua behin eta berriro irakurri eta egoera zein den ondo jabetu ostean, ikasleek, euren hitzak erabiliz, txiste modura konta dezakete.

Hor goian adierazitako hiru jarduerak egin aurretik, komenigarria da ondoren duzuen puntuazio-markei buruzko jarduera aldez aurretik burutzea.

37. Puntuazio-markak lantzen

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 7. lan-koaderno, 16. orrialdetik 18.era

Irakurri ditugun pasadizoak aitzakiatzat hartuz, puntuazio-markak landuko ditugu.

Gai honetan landuko diren ikurrak, puntua, maiuskulen erabilera, harridura-marka, galdera-marka, elkarrizketa-marra, hiru puntuak eta bi puntuak izango dira.

Baina hori guztia ez dugu jarraian egingo, orrialde hauetan, puntua eta bi puntuen erabilera agertuko da batez ere.

Bi ikur horiek lantzerakoan, ez gara Pernando amezketarraren testuan bakarrik oinarrituko, ikur horien erabilera orokorrean baizik. Beraz, memento honetatik aurrera, edozein idatzi edo irakurketa egiten denean, puntua edo bi puntuak agertzen direnean, zalantzarik badago, orrialde hauek har daitezke erreferentzia moduan eta bertako arauak gogora ekarri.

Komenigarria da, ikasnorabidearekin egiten duzuen bezala, puntuazio-marken orriak fotokopiatzea, plastifikatzea eta gelako paretaren batean jartzea, ikasleek zalantzaren bat dutenean bertara jo dezaten horiek argitzera. Orrialde horietako informazioa ikasleek ez dute inolaz ere zertan buruz ikasi behar, erabileran trebatzeko asmoz jarriko ditugu euren begi bistan.

38. CD-ROMarekin ortografia lantzen: puntuazio-markak

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: CD-ROMa

Gogoratu hainbat direla puntuazio-marken erabileran trebatzeko CD-ROMean aurkituko dituzuen jarduerak.

39. Kanta-kantari: “Zelako zaparrada!”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or./CDa, abestiak, 3. pista

"Zelako zaparrada!" abestia irakurtzeko ikasleei tartetxo bat eman ondoren, elkarriketa sortuko dugu letraren inguruan hitz egiteko, zeri buruzkoa den abestia, zer ezizen agertzen diren, etab. Gero, talde handian, CDarekin batera abesteari ekingo diogu.

Ondoren, gure eskualdeko pasadizo eta pertsonaia xelebreen gertaera, txiste, ezizen eta abar biltzeari ekingo diogu, gure proiektua pixkanaka osatzeko. Horretarako, oso interesgarria izan daiteke etxekoen eta, batez ere, aitona-amonen laguntza.

Gogoratu, Musikako lan-koadernoan duzuela lengoia musikala eta txirula lantzeko.

40. Eskualdeko klima eta paisaiak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.

Atal berria dugula eta, ikasnorabidera joan-etorria egingo dugu.

Jarduerarekin hasteko, tarte bat emango diegu ikasleei azalpen-testua irakurri eta kontzeptu-mapa osa dezaten. Gero, talde handian, jarduera berrikusi eta kontzeptuak argitzeari ekingo diogu. Kontzeptu-mapa honetan jarritako informazioa ikasleek ikastea egoki ikusten dugu, sintesian galdetu egingo baitiegu; beraz, adieraz iezaiezue ikasleei, hor jarritako informazioa ikasi egin behar dutela eta euren hitzekin zuei adierazi.

Bestalde, garrantzizkoa da itsasoaren gertatutasunak eta planetako latitudeak zertan eragiten duen argitzea, ez badugu loroen moduan ikas dezaten nahi.

41. Ipuina: Izorrai!

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or./Irakurgaiak 4, 10. orrialdetik 13.era

Ulermena lantzeko asmoz, hiru unetan landuko dugu ipuina: irakurri aurretik, bitartean eta ondoren. Orrialde honetan, irakurri aurretik ulermena indartzeko, hainbat estrategia azaltzen zaizkigu; taldean, jarduerak irakurri eta osatzeari ekingo diogu, beraz.

Gero, tartetxo bat emango diegu ikasleei ipuina bakarka irakur dezaten. Bukatzean, taldean irakur dezakezue, nahi izanez gero, irakurketa elkarkaria praktikan jarritz.

Ikaskuntza mota honen xedea zera da: ulermenaren eraikuntza, baina irakurketari jolas itxura ematen dionez, bide batez, haurren irakurketarekiko motibazioa erraztu eta pizten du.

Honako lauki honen barruan dagoena, 3. mailan irakurketa mota honen inguruan esandakoa agertuko da, batez ere 4. maila honetan berriak diren irakasleei zuzendua.

Irakurketa mota honek bi helburu nagusi ditu; testuaren ulermena eta irakurketa-estrategiak era esplizituan eta testuinguru naturalean lantzea. Beraz, ulermenaren bidez ezagutza bereganatzeaz gain, ikasleak irakurketaren estrategien funtzioaz ere jabetu ahal izango dira. Jarduera hau gauzatzeko modurik egokiena talde txikietan esperimintatzea da (gainera, 3. mailan ere landu dutenez, ikasleak ohituta egongo dira), baina, nahi izanez gero, ikasturteko lehenengo aldia izango denez, talde handian ere egin daiteke eta gogora ekarri iaz praktikan jarritakoa.

Testuaren arabera, ulermena ziurtatzeko erabiltzen diren estrategiak ezberdinak izaten dira, eta estrategiak modu esplizituan lantzeko rol bati egotziko dizkiogu; horiek dira, edozein dela ere aurrean dugun testua, martxan jarriko ditugun rola: irakurlearen rola, ikertzailearena, galdetzailearena, kazetariarena, asmatzailearena eta jakintsuarena.

- “**Irakurlea**” (dekodifikazioa): Taldekide bakoitzak bere liburuan irakurketari jarraitzeko aukera izango badu ere, irakurle ofizial horrek egingo du ozeneko irakurketa (txanda daitezke).

- “**Ikertzailea**” (argibideak): Ulertzen ez duen hitzen bat entzuten duen bakoitzean, irakurketa eten egingo du eta, testuingurua kontuan izanik, hitz horrek zer esan nahi duen argitzen saiatuko da. Erantzuna asmatzeko gai ez bada, beste taldekide bat saia daiteke. Denen artean ere hitzen bat argitzeko gai ez badira, ikertzaileak bakarrik edo irakaslearen laguntzaz, hiztegian bilatutako definizioa taldekideei irakurriko die.

- “**Galdetzailea**”: Falta diren eta testua ulertzeko behar diren datuei buruz galdetuko du.

- “**Kazetaria**” (laburpena edo sintesia): Irakurketa bukatzean, irakurritakoaren laburpena egin beharko du.

- “**Asmatzailea**”: Testuaren hariari jarraituz, nola bukatuko den asmatu edo iragarri beharko du bukaerara heldu aurretik.

- “**Jakintsua**”: Irakurritakoa garrantzitsua den beste informazio batekin erlazionatuko du, testua errazago ulertzeko asmoz.

Beraz, talde handian, azaldu egingo diegu ikasleei irakaskuntza elkarkaria lantzeko irakurketa modu hau martxan jarriko dugula berriz (iaz bezala). Utz iezaezue argi zein den horren helburua: irakurketaren helburu nagusia ulermena dela eta horrela irakurtzeak lagundu egingo digula.

Ondoren, aurkez itzazue rolak eta azal iezaezue bakoitzaren funtzioa zein den. Jarraian, ekin irakurketari: Irakurleak ozenki irakurtzen duen bitartean, gainerako ikasleek isileko irakurketa egingo dute, euren irakurgaietako testuari jarraituz. Norbaitek hitz ezezagun bat entzutean, irakurketa eten egingo du, galdetzaile-lana betez. Denen artean hitz horren esanahia argitzen saiatuko gara. Bi rol horiek eta baita kazetariarena ere erraz ulertzeko eta praktikan jartzeko gai izango dira, besteak betetzea, agian, zailago gertatuko zaie; horregatik, irakasleak berak eman beharko die eredia, irakurritakoa beste informazio batekin lotuz, testuan falta den eta garrantzitsua den informazioa erantsiz, etab.

Esperientzia praktikan jarri eta burutu ondoren, talde handian, horri buruz hitz egingo dugu:

- *Zuen ustetan, bakoitzak bere rola edo papera ongi burutu al du? Iaz baino errazagoa al da? Zein da oraindik ere rolik zailena? Rolak edo eginkizunak argi al daude edo oraindik zalantzak daude?*

Elkarrizketa honek, irakurketari dagokionez, irakasleoi pista asko eman diezazkiguke, ikasle bakoitzak dituen zailtasunak agerian geldituko baitira.

42. Ipuina irakurri ondoren

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 27. or.

Ikasleek ipuinean oinarritutako iritzi-mailako galderak erantzuteari ekingo diote; erantzuna idazteaz gainera, justifikazioa ere eskatu ikasleei. Gogora iezaezue zuzentasunez argudiatu behar dutela, hau da, kausalak erabiliz.

Ondoren, talde handian, “Ezjakintasuna eta ez ulertuak dira haserrealdi askoren iturri” esaldia argitzen saiatuko gara.

Esaldi hori aitzakia, “Erranak erran txokoa” estreinatzeke lehenengo esamolde eta esaeren bila abiatuko gara. Ipuinean bilatuko ditugu, horien esanahiaren inguruan hitz egingo dugu eta, bukatzeko, kartulina batean idatziko ditugu eta “ERRANAK ERRAN TXOKOA”n itsatsiko ditugu.

Bukatzeko, haserrealdien inguruan elkarrizketa bultzatuko dugu. Ikasle bakoitzak galderak irakurri eta bakarka erantzungo ditu. Gero, elkarrizketa unea irekiko dugu. Bakoitzak bere esperientziak eta sentimenduak adierazteko unea izango da; beraz, sentsibilitatezko eta errespetuzko jarrera garrantzitsua izango da.

43. Satelitei buruz irakurtzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 14. or.

Ikasleek, bakarka, satelitei buruzko azalpen-testua irakurriko dute. Ondoren, talde handian irakurri eta hari buruzko argibideak emateko elkarrizketa bultzatuko dugu. Aukera izanez gero, informazio gehiago ere bila dezakezue sateliteen inguruan, eta ez ahaztu informazio berria ipuinarekin erlazionatzea.

44. Egunkarietatik eta Internetetik eguraldiari buruzko informazioa aztertzen

Egun batzuetan, BERRIA egunkaria gelara norik ekarriko duen argitu ondoren, eguraldiaren orrialdea aztertuko duzue une batean. Orrialde hori ederki osatuta dago eta euskaraz daukagu gainera. Eguneko iragarpena, itsasoa (uraren tenperatura, itsasaldiak – itsasgora, itsasbehera–, hurrengo bi egunetako iragarpena, isobara mapa, eguraldiaren joera, eguzkiari buruzko datuak eta Europako eta munduko hainbat tokitako tenperatura maximoak eta minimoak ikus ditzakegu. Baliabide egokia da behaketa fintzeko, datuak konparatzeko, argibide-zeinuen interpretazioan trebatzeko...

Egunkaria behatzeaz gainera, informazio hori euskaraz hainbat helbide elektronikotan ere aurki dezakegu.

45. Zer eguraldi egingo duen igartzen

Lan egiteko era: Binaka/Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 28. or./CD-ROMeko ariketak grafikoekin trebatzeko

Ikasleek euren eskualdeko klima azertu beharko dutenez, lehenengo eta behin, informazio hori zer modutara (grafiko bidez) adierazten den, zer datu erabiltzen den eta non eta nola egiten den jakin beharko dute. Horregatik, grafikoak aztertzeari eta interpretatzeari ekingo diote: binaka, lehenengo, eta, gero, talde handian. Iaz ere hainbat grafiko egin zituzten; ekar ezazue, bada, gogora grafikoaren inguruan landutako guztia.

Orrialde horren bukaeran, irakasleak emandako datuekin grafikoak egiteko adierazten dugunean, gogorarazi nahi dizuegu, CD-ROMean hainbat direla, gai bakoitzean, datuetatik abiatuta grafikoak eraikitzeke eta interpretatzeko aurkezten zaizkizuen jarduerak; beraz, bidera itzazue ikasleak horiek burutzerak. CD-ROMa esku artean izango ez bazenute, eman ikasleei datu batzuk grafikoan eraketan treba daitezke; datu horiek asmatutakoak izan daitezke edo eta egunkarietatik hartutakoak.

CD-ROMean 1. unitate didaktiko honi dagozkion grafikoak hauexek dira:

LERRO- DIAGRAMAK

1. DONOSTIAKO TENPERATURAK

Grafiko hau ikasleek egingo dute; guk ardatzak jarriko ditugu. Ardatz horizontalean, egunak jarriko ditugu eta bertikalean, tenperaturak °C-tan. (Asmatutako datuak dira)

EGUNAK	1. eguna	2. eguna	3. eguna	4. eguna	5. eguna	6. eguna	7. eguna	8. eguna	9. eguna	10. eguna
TENPERATURAK	12 °C	9 °C	5 °C	4 °C	2 °C	2 °C	1 °C	1 °C	1 °C	3 °C

Interpretatzeko esaldiak (2 zuzen, bat okerra):

- Bigarren egunetik hirugarren egunera egiten du behera gehien tenperaturak.
- Neguko tenperaturak dira grafiko honetan adierazten direnak.
- Donostian, hamar egun hauetan, tenperatura bera izan dute.

2. EUSKAL HERRIKO POPULAZIOAREN BILAKAERA XX. MENDEAN

Ardatz horizontalean, urteak jarriko ditugu eta bertikalean, biztanleak. Grafiko hau egina emango diegu.

URTEAK	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991
BIZTANLEAK	1084616	1160023	1272645	1421920	1516852	1629172	1978035	2562760	2879032	2882766

- 1981tik 1991ra biztanleriak nabarmen gora egiten duen garaia izan zen.
- 1960tik 1970era egiten du gora gehien biztanleriak Euskal Herrian.
- 1900. urtea biztanle gutxien zeuden urtea izan zen.

3. TTONTTORPEKO IKASTOLATIK UDALEKUETARA JOAN DIREN NESKA-MUTILAK

Grafikoa egina emango zaie. Ardatz horizontalean, urteak jarriko ditugu eta bertikalean, haur kopuruak. (Asmatutako datuak dira)

URTEAK	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
KOPURUAK	132	150	200	265	200	175	250	300	250	250

- Udalekuetara haur gehien 2002. urtean joan zen.
- Udalekuetara haur gutxien lehenengo urtean joan zen.
- 2000. eta 2001. urtean haur kopuru bera joan zen udalekuetara.

BARRA-DIAGRAMAK

1. BAIONAKO EURI KOPURUAK

Grafiko hau ikasleek egingo dute. Ardatz horizontalean, egunak jarriko ditugu eta bertikalean, prezipitazioak mm-tan. (Asmatutako datuak dira)

EGUNAK	1.eguna	2.eguna	3.eguna	4.eguna	5.eguna	6.eguna	7.eguna	8.eguna	9.eguna	10.eguna
PREZIPITAZIOAK	124	33	13	0	0	0	0	18	0	0

- Orokorrean, Baionan egun hauetan euri asko egin du.
- Hamar egun hauetatik gehienak euririk gabeko egunak izan dira.
- Euri gehien lehen egunean egin du.

2. EUSKAL HIRIBURUETAKO BIZTANLEAK

Grafiko hau egina emango zaie. Ardatz horizontalean, hiriburuen izenak jarriko ditugu eta bertikalean, biztanleak.

HIRIBURUA	Baiona	Donibane Garazi	Maule-Lexarre	Iruñea	Donostia	Bilbo	Gasteiz
BIZTANLEAK	40051	3533	1432	186245	181064	353943	218902

- Zazpi hiriburuetatik biztanle kopuru altuena duena Bilbo da.
- Zazpi hiriburuetatik biztanle gutxien dituen Donibane Garazi da.
- Biztanle kopuru handiena duen bigarren hiriburua Gasteiz da.

3. TURISTEK EROSITAKO EUSKAL HERRIKO PRODUKTU TIPIKO BATZUK

Grafiko hau ere egin emango zaie. Ardatz horizontalean, produktuen izenak agertuko dira eta bertikalean, kantitateak kg-tan. (Asmatutako datuak dira)

PRODUKTUAK	Gazta	Piperrak	Babarrunak	Zainzuriak	Alkatxofak
KANTITATEAK	2.500 kg	9.850 kg	8.500 kg	5.900 kg	7.500 kg

- Gehien saldu den produktua alkatxofa izan da.
- Gutxien saldu den produktua gazta izan da.
- Babarrunak dira bigarren gehien saldu den produktua.

ZIKLOGRAMAK

1. TURISTEK EUSKAL HERRIAN AUKERATUTAKO LO-LEKUAK

Lehen ziklograma hau beraiek egiteko da. (Asmatutako datuak dira)

Landetxea	% 60
Pentsioa	% 30
Hotela	% 10

- Euskal Herria bisitatzera etortzen direnek lo egiteko garaian gustuko hoteletan lo egitea dute.
- Euskal Herria ezagutzera etortzen direnek lo egiteko landetxeak dituzte gustuko.
- Pentsioak dira bigarren gustuko dituztenak.

2. TTONTTORPEN ERABILTZEN DIREN GARRAIOAK

Ziklograma hau egin emango zaie, beraiek interpretatzeko.

GARRAIOAK	EHUNEKOAK
Autobusa	% 25
Trena	% 20
Autoa	% 45
Bizikleta	% 10

- Ttonttorpen gehien erabiltzen den garraioa autobusa da.
- Ttonttorpen gehien erabiltzen den garraioa pribatua da.
- Ttonttorpen garraio publikoetatik gehien erabiltzen dena autobusa da.

3. PREZIPITAZIOEN KOPURUAK EUSKAL HERRIAN

Ziklograma egina emango diegu. (Asmatutako datuak)

PREZIPITAZIO MOTAK	KOPURUAK
Xirimiria	% 35
Euria	% 50
Kazkabarra	% 5
Elurra	% 10

- Euskal Herrian elurra da prezipitaziorik urriena.
- Euskal Herrian euria da prezipitaziorik ugariena.
- Euskal Herrian xirimiria ere ugaria izaten da.

46. Animaliek ere eguraldia igartzeko balio omen dute

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 15. or.

Meteorologi zentroak existitzen ez ziren garaian ere, hainbat ziren eguraldia iragartzeko gizakiek erabiltzen zituzten estrategiak. Irakurgaietan, horietariko batzuei buruzko informazioa dago. Ikasleek tartetxo bat izango dute horiek bakarka irakurtzeko, eta, ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu, irakurritakoari buruz hitz egiteko.

- *Hemen esaten den guztia egia ote da? Benetan fida al gaitzke horrelako sistemaz zer eguraldi egingo duen igartzeko? Zuek asmatu al duzue inoiz zer eguraldi egingo duen? Nola asmatu zenuten edo zergatik? Ba al dakizue zer diren "meteorologi zentroak"? Eta zer tresna izaten dituzten bertan?*

47. Plubiometroa, anemometroa eta haize-orratza aztertzen

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 29. or./Irakurgaiak 4, 16. eta 17. or.

Meteorologi zentroetan eguraldiari buruzko datuak biltzen dituzten tresnen terminologiari erreparatuz eta horiei buruz hitz egin ostean, irudiak dagozkien definizioekin lotu beharko dituzte ikasleek. Jarduera ondo burutu duten bermatzeko, hiztegian begiratu beharko dituzte hitz horien definizioak. Hiztegian begiratzekoan, hainbat hitz beste hizkuntza batzuetatik datozela konturatuko gara: metro (latinetik), thermos (grekeratik) eta pluvia (latinetik); bultza ezazue elkarrizketa horiei buruz hitz egiteko.

Elkarrizketa bukatu ondoren, irakurgaietara joango gara eta, talde handian, jarraibide-testuak irakurriko ditugu. Jarraibide-testuei buruzko hausnarketaxoa egiteko parada ere hartuko dugu, egiturari erreparatzeko eta, baita ere, urratsen ordenari jarraitzeaz eta zehaztasunen garrantziaz jabetzeko.

Hiru tresna mota horiek eraikitzekeo testuan adierazten den materiala bildu ostean, talde txikiak osatuko ditugu, eta talde bakoitzak horietako tresna bat eraikiko du. Ondoren, bi kartulina handi hartu eta liburuko 28. orrialdean dauden grafikoak

prestatuko ditugu. Taula horietan hainbat datu bildu behar direnez, ardurak banatuko ditugu, hartara, talde bakoitzak egokitu zaizkion datuak bildu beharko ditu, aste betez, grafikoak osatzeko. Grafiko horiek gelako pareta batean jarriko ditugu, denon begi bistan, eta, talde handian, egunkarietan agertu ohi den bezala, aste horretako eguraldiari buruzko azalpentxoak emango ditugu. Nahi izanez gero, eguneko eguraldiari so eginez, batetik, datuak kontrasta ditzakegu eta baita hurrengo eguneko eguraldiari buruzko iragarpenak egiten jolastu ere, eta idatzitako azalpentxoak, datu bilketa eta grafikoekin batera, pasabideetan jarri, ikastolako beste ikasle eta irakasleek ere haren berri izan dezaten. Asmatzen ez baduzue ere, lasai egon, profesionalei ere sarri gertatzen baitzaie halakorik.

Oharra: plubiometroa egiteko garaian, mililitroak markatzeko eskatzen da. Erabil ezazue laborategiko probeta, botilan botatzen hasi: lehenik, 1 mm, eta ezabatzen ez den errotuladore batekin marra egin eta idatzi 1 mm; ondoren, 2 mm ur bota, eta markatu, ondoren, 3 mm...

48. Txisteak irakurtzen

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 18. eta 19. or.

Ikasleek, bakarka, irakurgaietako txisteak irakurriko dituzte, irakurketaz gozatzeko.

Gero, talde handian, txisteen inguruko hausnarketatxo bat egin dezakegu: txiste bakoitzaren ironia zein den azpimarratzen saiatuko gara, zerk eman dion txisteari grazia edo umore puntua, alegia.

Bestetik, puntuazio-zeinuei (elkarrizketa adierazten duen gidoia, galdera-ikurrak, harridura-ikurrak...) so egiteko parada ederra dugu hau. Ikusarazi, txisteak ondo ulertzeko eta ondo kontatzeko, oso garrantzizkoa dela horiek behar bezala interpretatzea.

Bukatzeko, "txisteen uea" saioari tartea egingo diogu, elkarri txisteak intonazio eta keinu egokiak erabiliz kontatzeko. Txiste-kontakteta egiteko orduan, adieraz iezaiezue ikasleei txisteak ez direla zertan testualki errepikatu behar, txisteak adierazten duen egoeraz jabetuz, bakoitzak bere hitzak eta keinuak erabiliz kontatu dezakeela eta, nahi izanez gero, bestelako esamolde eta abarrez hornitu eta aberastu ere bai. Ikasleak kontaktetara trebatzea da gure helburua; beraz, landu ezazue kontaktetari dagokion alderdi hau, denon artean, saioa balioetsiz, akatsak identifikatuz, kritikatu, etabar, betiere, ikasteko bideari eutsiz.

49. DVDA ikusten: Klima eta paisaiak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: DVDA

DVDari dagokion atal honetan, unitatean bertan agertzen diren EHko klimari buruzko azalpenak ahoz entzun eta paisaien irudiekin batera ikusteko aukera izango duzue; eduki berberaz jabetzeko beste baliabide bat bezala aurkeztu dugu jarduera hau, osagarri gisa.

50. Euskal Herriko paisaiak eta klimak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30. eta 31. or.

Oharra: Tarteko klima aipatzerakoan, euri gutxi egiten duela esaten da: gutxi, mendialdeko klimarekin eta klima ozeanikoarekin alderatuz gero. Horrez gainera, temperatura-aldaketa handiak daude: udan, bero handia eta neguan, hotz handia.

Euskal Herriko klima motaz jabetzeko, azalpen testutxoak talde handian irakurriko ditugu eta mapari behatuko diogu, informazioa erlazionatzeko. Ondoren, paisaiei behatu, eta klima mota batekin erlazionatzeaz gainera, paisaia mota bakoitzaren ezaugarriak aipatzen saiatuko gara. Gero, gure eskualdeari dagokion klima motaz jabetu ondoren, haren ezaugarriak aipatuko ditugu, klima paisaia horren eragile dela azpimarratuz.

Bukatzean, fenomeno naturalez gainera, gizakiak paisaia horren itxuraldaketan duen eragina hizpide izanik, hitz-errota martxan jarriko dugu. Proposatutako gaiaren inguruan ikasleek hausnar dezaten, hor beheko esaldi-sorta banatuko diegu; hausnartzen ere irakatsi egin behar baitiegu ikasleei. Aukera polita izan daiteke, ikasleek etxean, lagunei, etabarri hor jarritako esaldien inguruan galdetzea edota iritzi bat osatu aurretik informazioa biltzea, hizpide den gai horren inguruan eragina izan dezaketen beste faktore batzuei buruzkoa. Adieraz iezaiezue ikasleei prozesu hori guztia dela bizitzan gizakiok (gehienetan) jarraitzen dioguna, hau da, iritzi bat sortu aurretik gaiaren inguruko informazioa biltzea.

Izena:

Data:.....

- Hitz-errota honetako hizpidea: **Gizakiok paisaiaren itxuraldaketan dugun eragina**. Hor behean hitz-errota honetan aurkezten zaizun gaiaren inguruan hausnartzen lagunduko dizuten esaldi eta galdera batzuk dituzu. Irakur ezazu horietariko bakoitza, banan-banan, eta har itzazu minutu pare bat horren inguruan hausnartzeko. Burura ideia bat badatorkizu, beherago duzun idazteko tokian oharren bat jar dezakezu, gero, hitz-errotan hausnartu duzunaren inguruan sortutako iritzia behar bezala adierazteko eta esan beharrekoa ez ahazteko.

- Gizakiok etengabe ari gara eraikuntza-lanetan (etxeak, errepideak...).
- Gero eta eraikin gehiago, herriak eta hiriak neurrigabe haziz doaz eta gero eta berdegune gutxiago ditugu.
- Berdeguneen garrantzia: ibaiak, zuhaitzak, bertan bizi diren animaliak...
- Gizakiek eraikitakoak gizakiontzako abantailak dira.
- Hiriek eta herriek sortzen duten kutsadura.
- Klimaren aldaketa.
- ...

Oharrak:

.....
.....
.....

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

51. Ba al zenekien...

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 20. or.

“Ba al zenekien...” izeneko jarduera honetan, munduko hainbat lekutan ematen diren eta klimarekin zerikusia duten hainbat bitxikeria aurkituko ditugu bertan. Ikasleei orrialde hau bakarka irakurtzeko aukera eman ondoren, talde handian, banan-banan irakurriko ditugu, eta bakoitzaren inguruko elkarrizketa bultzatuko dugu.

52. DVDa ikusten: Erliebeko elementuak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: DVDa

Ikasleen liburuan agertzen den erliebeko elementuei buruzko jarduera osatzeko, DVDan informazioa irudi eta azalpen bidez ematen da. Azalpenak garrantzitsuak badira ere, irudiak dira, batez ere, ikasleei elementu horiek hobeto ulertzen lagunduko dietenak, eta horiek dira, hain zuzen ere, oraintxe bertan, eskaini ezin ditugunak. Hala ere, liburuko jarduera DVD gabe osa daiteke arazorik gabe.

53. Erliebeko elementuak identifikatzen

Lan egiteko era: Talde txikian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. eta 33. or.

Jarduera honetan, ikasleek, talde txikietan, erliebeko elementuen izenak hiztegian bilatu beharko dituzte, eta, esanahia ondo ulertu ondoren, irudian elementu hori bilatu eta izendatu egin beharko dute. Jarduera honen helburua ez da erliebeko elementuen definizioak ikasleek buruz ikastea, elementu horiek identifikatzea eta izendatzen jakitea baizik.

Bestalde, hitzak hiztegian bilatzeko orduan, talde txikietan banatuko gara. Taldekide bakoitzak hitz jakin batzuen bilaketa egingo du eta baita haren definizioa folio batean apuntatu ere. Gero, lana komunean jarriko dute, hitzaren definizioa irakurriko dute eta, denen artean ulertzen saiatu ondoren, irudian elementu hori non dagoen bilatu beharko dute eta bertan izendatu. Egindako lana talde handian elkarri azalduko diogu. Interesgarria da unitateko bi orrialde horiek fotokopiatu, handitu, marraztu, erliebeko elementuak bertan izendatu eta plastifikatu ondoren, gelako pareta batean jartzea, denon begi bistan.

54. Entzunaldia: “Ikusten duzu goizean”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, abestiak, 4. pista

Ziklo honetan ere, ikasleek Urtxintxarekin hasi zuten bideari ekinez, musikako entzunaldiak lantzen hasiko gara. Horregatik, une egokia da hau gure konpositoreen txokoa martxan jartzeko. Bertan, urtean zehar landutako entzunaldien konpositoreei buruzko informazioa itsatsiko dugu. Gure konpositoreen txokoan, hauek izango dira batik bat jarriko ditugun datuak:

- Konpositorearen izena, argazkia eta biografia.
- Entzunaldiaren izenburua.

Unitate honetan, Jean Baptiste Elizanbururen “Ikusten duzu goizean” euskal abesti tradizionala landuko dugu entzunaldi modura. Abesti hau, CDan, abeslari-talde batek interpretatuta entzuteko aukera izango dugu.

GURE KONPOSITOREEN TXOKOA

Hasteko, musika entzungo dugu talde handian eta, ondoren, elkarrizketa bultzatuko dugu, entzundakoari buruz hitz egiteko:

- *Ezagutzen al duzue entzun duzuen abesti hau?*
- *Abesti hau abeslari-talde batek osatu duen abesbatzak abesten du. Ba al dakizue zer den abesbatza? Ezagutzen al duzue abesbatzaren bat? Zuen herrian ba al dago baten bat?*

Euskaldunen artean abesteko ohitura handia egon da betidanik, eta ez bakarrik ospakizun berezietan, edozein aitzakia zen ona abesteko, mahai inguruan, taberna giroan, etab. Abesbatzak abesteko zaletasun horren ondorioz sortu ziren eta, gaur egun, herri gehienetan dago abesbatzaren bat edo beste. Gure konpositoreen txokoa martxan jartzeko, oraingoan, abesbatzei buruzko informazioa bilatuko dugu eta, informazio hori txokoan jartzeaz gainera, gure proiekturako ere erabiliko dugu.

JARDUERA

Lehenengo eta behin, jarduera honen xedea zein den adieraziko diegu ikasleei, hau da, abesti honek adierazten duenaren (musikak eta letrak) marrazkia egitea. Horretarako, urrats hauei jarraituko diegu:

- Hiztegia argitu: Abestia iparraldeko euskaraz idatzita dagoenez, agian, ikasleentzako arrotzak izan daitezkeen hainbat hitz egon daitezke; beraz, horiek argitzeari ekingo diogu. Horretarako, abestia entzungo dute ikasleek, eta hitz ezezagunak folio batean idatziko dituzte. Hitz horiek taldean argi ditzakezue, hiztegia erabilita.
- Abestia entzungo dugu, begiak itxita eta lurrean etzanda, hura irudikatzen saiatuko dira ikasleak.

- Bukatzeko, abestia berriro entzunez, buruan irudikatutakoa eta letrak ematen dizkien xehetasunak kontuan hartuta, folio batean marratzuko dugu arkatzez, zirriborro gisa. Abestia behin eta berriro entzun daiteke, zirriborroarekin gustura geratu arte. Gero, argizaria, tenpera edo bestelako teknikaren bat erabiliz, zirriborroan egindakoa kartulina batean txukun-txukun margotuko dute. Aurrerago, Zumetaren artelanean oinarrituta artelanak egingo dituztenez eta horien erakusketa antolatuko duzuenez, marrazki/margo horiek, abestiaren letra aldamenen dutela, erakusketan jar ditzakezue.

55. Asmakizunak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 21. or.

Ikasleek irakurgaietako asmakizunak bakarka irakurri eta asmatzeari ekingo diote. Gero, taldean irakurri ditzakezue eta bakoitzak asmatutakoa taldean alderatu.

Hona hemen asmakizunen erantzunak: IBAIA, HONDARTZA, MENDIA, AINTZIRA.

56. Bertsoak irakurtzen: “Errota zahar maitea”

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 4, 22. or./CDa, abestiak, 5. pista/7. lan koaderno, 19. or.

CD-an dugun bertsoa entzun eta musikaz eta erritmoaz gozatzearekin batera, doinua geureganatuko dugu. Gero, lan-koadernoan ditugun bertsoak banaka osatuko ditugu eta, taldean, bertsoa abesteari ekingo diogu.

Oharra: Irakurgaietako bertsoaren ulermena bermatzeko, irakurketa, talde handian eta irakaslearen laguntzaz egingo dugu, eta beharrezkoa ikusten dugunean, hiztegira joko dugu.

57. CD-ROMa: Bertsoak osatzen

Lan egiteko era: Banaka/Binaka/Talde handian (proiektore digitalarekin)

Materiala: CD-ROMa

CD-ROMean hainbat bertso aurkituko dituzue. Dagokien hitzekin osatzeaz gainera, doinuak aditzeko aukera izango duzue.

58. Bueltako komikia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 34. or.

Ikasleei komikia irakurtzeko tartetxo bat eskaini ondoren, taldeko elkarrizketa bultzatuko dugu, hizkuntza-funtzio batzuk martxan ipintzeko eta irakurritakoaren ulermen orokorra eta zehatza bermatzeko.

- *Nola adieraziko genuke, laburki, komiki honetan gertatu dena?*
- *Komikian agertzen den gizona ingelesez hitz egiten ari da. Nongoa izango dela ustea duzu? Ba al daki euskaraz hitz egiten?*

- *Xabierrek eta Mei Lik emandako azalpenekin aurkituko duela uste al duzu bilatzen ari zen tokia?*
- *Mei Lik eta Xabierrek ez dute oso ondo ulertu gizonak esandakoa, alegia, azokara doala erakusketa bat ikustera. Txarto ulertze horren arrazoia, zure ustez, hizkuntza ondo ez ezagutzearen ondorio al da? Orduan, nondik sortzen da halako ez-ulertua?*
- *Maiderekin ba al daki zer den beste biek ulertzen ez dutena? Nola daki? Nork esan dio?*
- *Ba al dakizu zer den Su meta? Eta nor den Zumeta?*

59. Ingelesa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 35. or.

Iaz planoak zer diren, zertarako erabiltzen diren eta haiekin trebatzen ere ikasi genuen. Lanketa hura guztia euskaraz egin izan bagenu ere, ezagutza hura aprobetxatuz, ingelesari dagozkion esamoldeak eta esaldiak ezagutu eta ikasiz, antzeko azalpenak ingelesez ematen ikasiko dugu, gure bizitza errealean hainbat aldiz egokituko baitzaigu azalpen horiek eskatzea eta ulertzea (geu izanik atzerritarrek) edota zuzentasunez ematea (atzerritar batek eskatzen digunean).

60. Artelanak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 36. or.

Hirugarren mailara heldu diren haur hauek (Urtxintxa eta Txanela proiektuetan ibili badira, behintzat), urteak daramatzate artelanei behatzen, artisten biografiak entzuten, etab. Dagoeneko, haurrek gure inguru kulturalaren “imajinario kolektiboaren” hainbat artelan eta artista (euskaldunak eta kanpokoak) ezagutzen dituzte eta bide horretan jarraituko dugu laugarren mailan ere. (Tarte bat hartzen baduzue, aurreko urteetan ikusi dituzten lanen berri jaso ezazue, eta beste mailetako irakasleei eskatu, plastifikatu badituzte eta eskura badituzte, aurre-ezagutzen inguruko elkarrizketa garatzeko lagungarriak izan baitaitezke).

Jose Luis Zumetaren artelanei behatuko diegu. Kolorearen indarrari egingo diogu so eta baita orbanei eta lerroei ere. Eskura badituzue, ekarri gelara bere artelan gehiago.

Haur bakoitzari kartulina handi bat eman eta, kolore bizidun tenperak erabiliz, bakoitzak bere koadroa margotuko du. “Gu ere Zumetaren antzera” izenburupean, erakusketa antolatu, ikastolako pasabideetan edota egoki ikusten duzuen tokian.

61. Proiektua gauzatzan

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 37. or.

Proiektua burutzeko hainbat lan falta zaizkigu oraindik eta horiek bukatzeari helduko diogu.

Hasteko, liburuxka bukatuko dugu. Gero, ibilbidea egiteko azken xehetasunak eztabaidatu eta adostuko ditugu. Gogoratu interesgarria dela argazki-kamera eramatea eta irteerako argazkiak ateratzea (ikus gida hasieran proposatzen den urte osoko proiektua). Ondoren, irteera egingo dugu, gure liburuxka esku artean dugula, bertan adierazitako hainbat toki bisitatuz, argazkiak ateraz, atsedena eta jolas-uneak hartuz, egun ederra pasatzen saiatuko gara.

Irteera egin ostean, egindako lan guztia balioesteko, elkarrizketa bultzatuko dugu, liburuxka, irteeraren planifikazioa, gogoia, gozamina, irteera bera eta abar, era eraikitzaile batean balioesteko edota kritikatzeko, garrantzitsua baita ikasleak egindako lanaz jabetzea, izandako zailtasunez ohartzea, hori guztia apendizaiaren alderdi garrantzitsua baita, hurrengo batean egin beharreko lanaren aurrean zailtasunak aurreikusteko eta ahal den neurrian saihesten ikasteko.

62. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 38. orrialdetik 40.era

Sintesi orrialdeen helburua, ikasitakoaren erreposoa egiteaz gainera, hainbat alderdi ebaluatzeko tresna bezala erabiltzeko aukera eskaintzea ere bada. Ikasleek sintesi orri hauek bete aurretik, unitatean zehar ikusi eta ikasitakoaren erreposoa egitea aholkatzen dizuegu.

Nolanahi ere, orriotan landutakoaren alderdi batzuk baizik ezin dira errepasatu. Hau da, dramatizazioaren, plastikaren eta aho-hizkuntzaren inguruan landu diren edukiak, prozesuan zehar (unitatean zehar dagozkion jarduerak burutzerakoan) behatu beharko dituzue, ez baitu zentzu handirik, hainbat prozesu luze azken unean eta behaketa egiteko asmoz berriro ere errepikatzeak. Hizkuntza idatziarekin beste hainbeste egin beharko zenukete.

63. Hemen edo han, gure Txanelan!

Lan egiteko era: Talde handian

Talde handian, bildutako argazkiak antolatu eta haiei dagozkien azalpentxoak idatzi ondoren, gure albumeko lehenengo atala osatuko dugu. Album hau gelan begi bistan izan dezakegu, nahi dugunean bertara joz, begiratzea eta irakurtzea. Agian, atril antzeko batean koka dezakezue. Albumeko atal bakoitza bukatzen duzuen bakoitzean, har ezazue denbora egindakoa lasai ikusteko eta hartaz gozatzeko.

Musikako lan-koadernoak

1.1 HERRIKO MUSIKARIAK

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.1 fitxa/CDa, jarduerak, 1. pista

Euskal herri eta hirietan musika oso hedatua dago. Ospe handikoak dira han-
hemenka antolatzen diren "Jazzaldi", musikari-topaketa, jaialdi, kantu-lehiaketa,
kontzertu eta antzekoak.

Horrez gainera, zein herritan ez dago koru, rock-talde, txistulari-talde edo
antzekorik? Zer izango lirakeke gure jai eta festak musikaren presentziarik gabe?

Pentsa dezagun. Udan, bizi berri ditugun jaietan, musikarik entzun al dugu?
Non? Noiz? Egin dezagun zerrenda bat.

Guk, CDan horietako egoera batzuk ekarri ditugu gurera. Entzun eta zenbatu.

Fitxa honen helburuetako bat, bertan eskatzen denarenaz gainera, komunikazio-
giro goxo bat sortzea da. Ikasle bakoitzaren musika-gustuak ezagutzeko aukera izango
dugu. Bakoitzak zer motatako musika-talde ezagutzen dituen. Musika-estiloei buruzko
hausnarketa egiteko aukera eskaini nahi da.

1.2 HUTSUNEAK BETE

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.2 fitxa

Dagoeneko badakizue erritmoa bakarrik idatzita agertzen den marrari
ERRITMOGRAMA deitzen diogula. Erritmograma honetan, zortzi konpaseko melodia
txiki bat idatzi dugu.

FITXA HAU LANTZEKO PROZEDURA:

Erritmograma aztertuko dugu:

- Biko neurrian idatzita dago.
- Zer zelula erritmiko ditugun: beltzak, kortxeak eta zuriak. Bakoitzetik zenbat.
- Denok batera erritmoa irakurriko dugu, *dan, dilin, doon* esanez, aurrena;
txaloak joz, ondoren.
- Nota bakoitza pentagraman dagokion tokian idazteko eskatuko diegu ikasleei.
Bosgarren konpaseko bi Do horiek, jakina, agudoak edo goikoak dira,
pentagramako hirugarren tartean idazten direnak, alegia.
- Pentagraman agertuko zaigun erritmoa lehengo berbera da. Nahi baduzue,
berriro landu eta notak irakurriko ditugu, izenak esanez.
- Ondoren, solfeatu egingo dugu. Hau da, noten izenak kantatuz esango ditugu.
- Segidan, txirula hartuko dugu eskuetan, eta goxo-goxo interpretatuko dugu
melodia.
- Azkenik, kantatu egingo dugu.
- Kantuen bertsoari dagokionez, erdia bakarrik idatzi dugu. Beraz, ikasle
bakoitzak asmatu beharko du beste erdia. Ahal badu, behintzat, errima
errespetatu dezala.
- Proposatuko ikasle bakoitzari berak asmatu duen bertsoarekin kantatzea.

TXIRULA JO AURRETIK KONTUAN IZATEKOAK:

Melodian agertzen diren notak landu, ariketa simple eta erraz batzuk eginez. “Entrenamendua” deitzen duguna eginez. Hona hemen adibide batzuk:

a) Errepikak: irakasleak ahoz esan eta ikasleek txirulaz errepikatu.

IRAKASLEAK	IKASLEEK TXIRULAZ
q q e e q SOL SOL LA LA LA	q q e e q SOL SOL LA LA LA
q q e e q LA LA SI SI SI	q q e e q LA LA SI SI SI
q q e e q SI SI DO DO DO	q q e e q SI SI DO DO DO
q q e e q DO DO SI SI SI	q q e e q DO DO SI SI SI
q q e e q SI SI LA LA LA	q q e e q SI SI LA LA LA
q q e e q LA LA SOL SOL SOL	q q e e q LA LA SOL SOL SOL

b) Sekuentziak: Irakasleak esandako edo idatzitako sekuentzia laburrak hamar aldiz errepikatu.

IRAKASLEAK	IKASLEEK TXIRULAZ
e e e e e e q SOL SOL LA LA SI LA SOL	e e e e e e q SOL SOL LA LA SI LA SOL
e e e e e e q SOL SOL LA LA SI SI DO	e e e e e e q SOL SOL LA LA SI SI DO
e e e e e e q DO DO SI SI LA LA SOL	e e e e e e q DO DO SI SI LA LA SOL
e e e e e e q DO DO SI SI LA SI DO	e e e e e e q DO DO SI SI LA SI DO
e e e e e e q SOL LA SI DO SI LA SOL	e e e e e e q SOL LA SI DO SI LA SOL

Fitxa hau amaitzeko, bertan agertzen den grafikoa osatu behar dugu. Lehen konpasaren azpialdean txirula bat agertzen zaigu. Lau zulo itxita ditu. Beraz, pentagraman Sol nota idatzi behar da. Bigarren konpasean, aldiz, La nota agertzen zaigunez, txirulaz jo ahal izateko zein zulo itxi behar diren adierazi behar da. Lan bera egin behar da azkeneko bi konpasekin ere.

1.3 ERRITMO-DIKTAKETA

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.3 fitxa/CDa, jarduerak, 2. pista

Eskema bakoitza entzun, denbora izanez gero barneratu eta, ondoren, paperera pasatzea da ariketa honen helburua. Aurreko mailetan, irakaslea izan da eskemak proposatu izan dituenak. Modu honetan, nahi hainbat aldiz eta komenigarriena iruditzen zaion abiadura erabili izan ohi ditu.

Oraingoan, sei eskema hauek geuk grabatu ditugu. Beraz, arin samar ibili behar. CDarekin ere nahi hainbat trikimailu egin daitezke: gelditu, atzeratu, berriro hasi. Lan hori irakaslearen baitan dago. Beti bezala, zenbait ikaslek berehala burutuko dute lana eta beste zenbaitekin aipaturiko trikimailuak erabili beharko dira. Dena den, lanak erraztu asmoz eta ariketa ulergarriagoa izan dadin, laguntza txiki bat eskaini nahi izan dugu. Zelula erritmiko bakoitza hots batez bereizita joango da: kortxea guztiak danbor hotsez identifikatu ahal izango dira; beltzak, triangelu hotsez; eta, azkenik, zuriak, txindata hotsez.

Arreta, memorizatzeko gaitasuna eta entzundakoa idazteko trebetasuna ditu helburu fitxa honek.

1.4 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.4 fitxa/CDa, jarduerak, 3. pista

“Pinpilinpauxa”

Hamasei konpas ditu melodia honek. Guztira, 50 hots. Nota ezberdinak, berriz, lau bakarrik dira (Sol, La, Si eta Do).

Beti bezala, erritmoa irakurri behar dugu eta, ondoren, ahal den moduan (txaloz, belauak kolpatuz edo perkusiozko tresnak erabiliz), markatu egin behar dugu.

Letra ere erritmikoki irakurri behar dugu. Notak irakurri ondoren, abestu egin behar dugu eta, azkenik, txirula hartu behar dugu eskuetan.

Fitxa honetan, eskala errepatatzea proposatzen dugu. Ondoren, bakarkako lana egin behar da, adierazitako notaren aurrekoa eta ondorengoa idatziz.

Melodia begi bistan dugularik, ia nota guztiak bata bestearen jarraian daudela esan dugu. Egia da, baina badira hiru salbuespen:

- Bigarren konpasean, Si-ren ondoren, Sol agertzen da.
- Seigarrenean, kasu berdina.
- Eta seigarrenetik zazpigarrenera pasatzerakoan, Sol-etik Si-rako saltoa dago.

Gogoratu “entrenamendua” egitea xirulaz abestia interpretatu aurretik. Hona hemen adibide batzuk:

IRAKASLEAK	IKASLEEK TXIRULAZ
q q e e q LA LA SI SI SI	q q e e q LA LA SI SI SI
q q e e q LA LA DO DO DO	q q e e q LA LA DO DO DO
q q e e q DO DO SI SI SI	q q e e q DO DO SI SI SI
q q e e q DO DO LA LA LA	□□□□□ DO DO LA LA LA
□□□□□ DO DO SI SI SI	□□□□□ DO DO SI SI SI
□□□□□ DO SI DO DO DO	□□□□□ DO SI DO DO DO
□□□□□ LA SI SOL SI SI	□□□□□ LA SI SOL SI SI

1.5 FALTA DENA OSATU

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Musikako lan-koaderno, 1.5 fitxa

Musika eta matematika oso loturik egon omen dira beti. Eta egia da: musikan zerbait egiten badugu, neurtu egiten dugu. Erritmo-zelula bakoitzak bere iraupena du eta iraupen horren arabera neurtzen ditugu konpasak. Konpas bat amaitu dela adierazteko, “zati-lerroa” jartzen dugu, eta, segidan, beste konpasa idazteari ekiten diogu.

Konpas bakoitzaren iraupena zenbatekoa den Sol-en ikurraren ondoren adierazten zaigu. Orain arte biko eta hiruko neurriak erabili ditugu. Hori guztia gogoratzeko, errepasso-fitxa hau prestatu dugu.

Oraingoan, biko eta hiruko neurriak ditugu aztergai. Adierazitako taupada kopurua edo neurria kontuan harturik, zati-lerroak jarri behar ditu ikasleak.

Bigarren ariketan, irakasle lanak egingo ditu ikasleak. Oraingoan ere, neurria kontuan harturik, gaizki dauden konpasei gurutze bat egin behar zaie.

Azkenik, Sol-en ikurraren ondoan, pentagrama horri dagokion neurria idatzi behar da.

1.6 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.6 fitxa/CDa, jarduerak, 4. pista

“Blai-blai”

Abesti alai eta bizi da, baina, txirulaz jotzerakoan, arreta handia jarri behar da. Agertzen zaizkigun notak Sol, La, Si, goiko Do eta goiko Re dira.

Saltoz beteriko konpasak agertzen zaizkigu. Sol-Si eta La-Do bikoteak ditugu lehenengo, hirugarren eta bosgarren konpasetan.

Zailtasun handia dela ikusten bada, zati edo konpas horiek bakarrik landu behar ditugu, oso mantso hasi eta apurka-apurka arinduz.

Ohiko prozedurari jarraitu behar diogu abestia lantzerakoan:

- Erritmoa irakurri eta markatu.
- Hitzak erritmikoki irakurri.
- Solfeatu.
- Abestu.
- Txirula jo.

Ez ahaztu garrantzitsua dela “entrenamendua” egitea. Hemen dituzue adibide batzuk. Baina dagoeneko konturatu zaretenez nola egiten den lan hori, hauek izango dira azkeneko adibideak. Hemendik aurrera zeuen kontu.

IRAKASLEAK	IKASLEEK TXIRULAZ
□□□□□ SOL SI SI SI SOL	□□□□□ SOL SI SI SI SOL
□□□□□ SOL SI SI SI LA	□□□□□ SOL SI SI SI LA
□□□□□ SI SI DO DO DO	□□□□□ SI SI DO DO DO
□□□□□ LA DO DO DO SI	□□□□□ LA DO DO DO SI
□□□□□ LA LA LA DO DO	□□□□□ LA LA LA DO DO
□□□□□□□ LA DO LA DO DO DO SI	□□□□□□□ LA DO LA DO DO DO SI
□□□□□□□ SI LA DO DO SI SI SOL	□□□□□□□ SI LA DO DO SI SI SOL
□□□□□□□ LA DO LA DO LA LA DO	□□□□□□□ LA DO LA DO LA LA DO
□□□□□ LA DO LA LA RE	□□□□□ LA DO LA LA RE
□□□□□ LA RE RE RE LA	□□□□□ LA RE RE RE LA

Bestalde, fitxa honetan, iazko ikasturtean ikusitako eta elkarrekin agertu ohi diren bi kontzeptu ekarri nahi izan ditugu gogora: “Da capo” eta “Fine”. Da Capo, D.C. idatzita, pentagraman agertu ohi da, eta abestiaren hasierara joan behar dugula esan nahi du. Fine-k, berriz, abestia puntu horretan bukatu behar dugula esan nahi du.

1.7 MUSIKARIEN TXOKOA

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.7 fitxa

“Turuta”

Aurten ere musika-tresna batzuk egingo ditugu. Baina gogoan izan horiek egiteko ahalik eta diru gutxien gastatu behar dugula. Imajinazioa martxan jarritz, eta zaborretara bota ohi ditugun hainbat gauza berrerabiliz, soinu politak eta bitxiak sor ditzakegu.

Gaurkoan, turuta egingo dugu.

MATERIALA

- Plastikozko hoditxo bat edo, eskura bazenezate, kanabera zati bat.
- Zetazko paper zatitxo bat.
- Labana edo guraizeak.
- Zinta eranskorra.

NOLA EGIN?

- Egin 2 cm inguruko zulo bat hodiari, ertzetik 2 zentimetrora.
- Jarri zetazko papera zuloaren gainean, hori estaliz, eta eman ieazkiozue zinta eranskorraz buelta pare bat, ongi itsatsita gera dadin.

NOLA JO?

Hartu ahoan, zetazko papera estali gabe, *eta ez egin fuuu!* Kanta ezazue lasai-lasai, ahoan duzuela.

Oharra: egokiena eta politena kanabera zati batekin egitea da. Hori ezean erabiliko dugu plastikozko hoditxoak. Elektrikariek erabiltzen duten hodia egokia da eta, lehen aipatu bezala, imajinazioa erabiliz, hodi luze samarra lortzen badugu, forma desberdinak eman ahal izango dizkiogu gure turutari, korapiloak eginez eta abar. Eta kolore desberdinetako zinta eranskorrekin apaintzeko aukera duzue.

1.8 TXIRULA JOTZEN IKASTEN

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 1.8 fitxa/CDa, jarduerak, 5. pista

“Kua-kua” kanona.

Kanona egiteko, gutxienez bi lagun behar ditugu. Eskolan gaudenez, bi talde egin behar ditugu. “A” eta “B” taldeak. Betiere, komeniko da, bi taldeek antzeko kopurua edukitzea.

“A”	“B”
Ikasleak	Irakaslea
Neskak	Mutilak
Atzekoak	Aurrekoak
Ezkerraldekoak	Eskuinaldekoak

Kanona lau modutan egitea proposatzen dizugu:

1. Erritmoa landuz. Ahoz edo tresnak erabiliz egin daiteke.
2. Solfeatuz. Intonatu edo intonatu gabe ere egin daiteke.
3. Testua irakurritik. Intonatu gabe ere egin daiteke.
4. Txirula jotuz.

KANONA ONGI ATERATZEKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA:

- Denek ongi ikasi melodia.
- Bi talde egin eta talde bakoitzak kanta dezala melodia. Horrela, ongi barneratu duten ala ez jakingo dugu. Hori oso garrantzitsua da kanona ongi ateratzeko. Behar den denbora gutzia hartu honetarako eta, horrela, ez dugu frustraziorik eragingo.
- Hastera goaz: lehenengo bueltan, “tutti” egingo dugu, hau da, denak batera hasi. Bigarren bueltan, “A” taldea hasiko da, eta berak bakarrik egin dezala kanta gutzia. Hirugarren bueltan, “A” taldea martxan dago, eta “B” taldea hasiko da hasieratik, “A” taldea “B” jartzen duen puntura iristen denean.

Nola eman bukaera kanonari?

Hiru aukera bururatzen zaizkigu:

1. Erabakitako unean, denok batera bukatu, nahiz eta talde bat ez iritsi bukaerara.
2. Erabakitako unean, “A” taldea isil dadila kantua amaitzen duenean, eta “B” taldeak bakarrik jarrai dezala amaitu arte.
3. Erabakitako unean, hasieran bezala, “tutti” eginez amaitu.

LAN KOADERNOTIK APARTEKO ARIKETA

GAZTAINA-SALTZAILEA

Materiala: CDa, jarduerak, 6. pista

Dantza.


- Melodiaren azpiegitura tonala: Re M

- Erritmoaren urratsetan:

Erritmo eskema:

Jarrera: Korroan bildurik eta aurrerantz mugituz.

Mugimenduak:



Gorputz espresioa:

Besoak, lepoa, gerria, aurpegia, guztizko lasaitasunean.

Graziak eta malgutasunak oinentzako antresantak eta kontrapasak egiteko garaian.



GAZTAINSALTZAILEA

Erre, errekin, errekin,
nork nahi ditu sei gaztaina?
Erre, errekin, errekin,
merke, merke, alajaina.
Gordinak, lirainak, laster Sanmartinak,
pinpan, pinpun, danbolinak.